

Klagenfurtetik Vienara, Ingeborg Bachmann gidari: *Aldiberekoren* itzulpena

IDOIA SANTAMARÍA URKAREGI

Itzultzailea

Sarrera

2018ko uztailean hasi nintzen Ingeborg Bachmannen *Aldibereko* euskaratzen, egiteko hori egokitu baitzitzaidan Literatura Unibertsalaren urte hartako lehiaketan, eta 2019ko maiatzean bidali nuen itzulpena EIZIera. Joan den urteko azaroan aurkeztu genuen Donostian, Ngũgĩ Wa Thiong'o-ren *Gerra garaiko ametsak* liburuarekin batera (Olatz Prat Aizpuruk itzulia).

Itzulpena esleitu zidatenean, aurkeztu berria genuen hilabete gutxi batzuk lehenago itzuli nuen Friedrich Dürrenmatten *Epailea eta haren borreroa* (2018), hura ere Literatura Unibertsalaren bildumarako, eta Parisen nengoen, oporretan, ahizpekin. Poz handia hartu nuen, jakina, eta sekulako sustoa —hori ere «jakina»—, telefonoz hots egin zidatenean, eta ahizpek, ni ondo ezagututa, berehala eman zuten epaia: «Akabo Paris».

Parisetik bueltan heldu nion, beraz, itzulpen-prozesu ororen parterik atseginenari: «dokumentatzea». Hitz larri biribil hori erabilita, neure burua zuritzen dut beti, ez bainaiz ez sistematikoa, ez ordenatua jardun horretan, ume begiluze apetatsu bat baizik. Dena nahi dut irakurri, dena prozesatu, dena inguratu, eskuratu: biografiak, idazlearen beste lanak, haren lanari buruzko azterketak, beste hizkuntza batzuetako itzulpenak, podcastak, filmak... Edozer. Dena. Antsietateak jota dena irakurri ezin dudalako, baina pozik, irakurtzen-entzuten-ikusten-oharrak-eskuz-idazten ari naizen bitartean ez diodalako heldu behar itzulpenari, ez dudalako arazo benetakorik oraindik, ez nabilelako itzulpenerako tonua ezin bilaturik, hitz batekin ezin asmatu, paragrafo bati ezin neurria harturik... Ahalik eta gehiena luzatzen dut beti «dokumentazio-fasea», txingoma balitz bezala, neure buruari gezurra esan eta esan («garrantzi-

tsua da hasierako fase hau, nahiz itxuraz denbora galtzen ari naizen»; «hobe orain ondo prestatzea, eta ez gero, itzulpenaren erdian, atzera egin beharra...», ttar-ttar-ttar), harik eta, gezurren erdian, egiak urdailean eztanda egiten didan arte: «Heldu behingoz itzulpenari, tripetako korapiloa askatu nahi baduzu; bestela, segi *in eternum* Omeprazolekin».

Hola hasi nintzen *Aldiberekorekin*. Bachmann buruan eta urdailean sartu nahian. Eta sartu nuen, halako batean. Ateratzea, ordea, ez dut lortu oraindik. Urtebete joan da dagoeneko itzulpena bukatuz geroztik, eta, Austria-Hungariako Inperioa oroimenean lausotzen hasita neukalarik, hara non eskatu zidaten *Senez*erako artikulu bat *Aldiberekoren* itzulpenaren berri emateko.

Bi kaxa handitan dauzkat gordeta, paperean, itzulpena osatu bitarteko erdibideko faseetako bertsioak (nireak eta zuzentzaile adiskideek bidalitakoak),¹ han-hemen jasotako artikulua, jatorrizko liburua (Bachmann, 1972) eta eskura izan ditudan inguruko erdaretako itzulpenak: ingelesezkoa (Bachmann, 1989), frantsesezkoa (Bachmann, 2006) eta gaztelaniazko biak (Bachmann, 1987; Bachmann, 2011).

Karlos del Olmok eta Amaia Apalauzak *Senez*erako artikulua eskatu zidatenerako, apalategiaren goialdera igoak nituen bi kaxa horiek; baina mahai gainean neuzkan oraindik, bi tontorretan banatuta, «dokumentazio-fase»ko liburu batzuk: Bachmannen biografia bat (Stoll, 2013), Bachmannek Paul Celanekin (Böttiger, 2017) eta Max Frisch-ekin (Gleichauf, 2015) izandako harremanaren berri ematen duten liburu bana, Bachmannen eta Celanen arteko gutun-trukea (Bachmann eta Celan, 2015), Bachmanni egindako elkarrizketen bilduma bat (Kosche eta Von Weidenbaum, 1983), Joseph Rothen *Radetzky*marsch (1981) eta *Die Kapuzinergruft* (2002) eleberrien gaztelaniazko itzulpenak —garrantzitsuak, erreferentzia gisa, *Aldibereko* bildumako azken ipuina itzultzeko— eta Eduardo Gil Berak Rothi buruz idatzitako saiakera txiki eder bat (2015). Lan horietaz gainera, euskarazko hauek ere mahai gainean izan nituen hasieratik: *Ulises* (Joyce, 2015), *Otto Pette* (Lertxundi, 2018), *Bartleby eskribatzailea* (Melville, 2016), *Egunero hasten delako* (Saizarbitoria, 1979) eta *Sekulorun Sekulotan* (Urkizu, 1975). Sekulako zikulutsa.

Hortaz, lagun austriar eta euskaldun zahar-berriok oraindik mahaiaren bueltan ditudanez, hel diezaiodan behingoz —hemen ere, itzulpenean bezalaxe, mamiari heltzeko beldurrez, eta orain, gainera, koronabirusak garuna bigunduta— gaurko «bazkalondo» honi, luzamenduak utzita.

Kokatze

Itzulpena egin ahala sortutako erdibideko dokumentuen artean, «Jasotakoak» izeneko bat da interesgarriena, hor baitauzkat jasota itzulpena egin ahala aurkitutako behaztopa-harritsuak (edo koskor handiagoak). Dokumentu hori izango dut, beraz, txango honetan gidari.

1. Zuzentzaile-laguntzaile-adiskide kuadrilla paregabea izan dut bidelagun: Maialen Berasategi, Xabier Olarra, Juan Garzia, Patxi Petrirena, Alfontso Mujika, Aroa Uharre eta Beñat Sarasola.

Hasteko, baina, koka ditzagun pixka bat Bachmann eta *Aldibereko*. Lehenik eta behin, datu biografiko gutxi batzuk, Bachmannek berak emanak, *Die Wahrheit ist dem Menschen zumutbar* liburuan [Egia jasangarria zaie gizakiei] (1981: 101-102), non haren zenbait saiakera labur, hitzaldi eta idatzi jasotzen baitira:

Nerabezaroa Karintian eman nuen, [Austriaren] hegoaldean, mugan, bi izen dituen haran batean, bata alemanez eta bestea eslovenieraz. Nire arbasoek —austriarrak eta esloveniarrak—² belaunaldiz belaunaldi bizileku izan duten etxeak hots atzerritarreko izena du oraindik ere. Hain da gertu muga; muga, beti muga: hizkuntzaren muga... Etxean, bigarren eta baita hirugarren herrialde bateko espiritu on eta gaiztoei buruzko istorioak ere entzuten nituen maiz, han-hemen, zeren eta mendiez bestaldera, ordubete eskasera, Italia baitzegoen.

Uste dut haran estu hark eta mugaren kontzientziak urrutiko herriekiko grina eragin didatela beti. Gerra amaitu zenean, Vienara joan nintzen, ezinegonak bultzaturik eta itxaropenez beteta, ordura arte helmuga guztiz iritsezina baitzen hiriburua niretzat. Hura ere mugako aberri izan nuen: ekialdearen eta mendebaldearen artean, iragan handi baten eta etorkizun ilun baten artean. Eta, nahiz gero handik Parisera, Londresera, Alemaniara eta Italiara joan nintzen, leku-aldaketa horiek guztiak ez zuten izan nigan eragin apartekorik, nire oroimenean ez baita sekula izan nire haranetik Vienarako bidea baino bidaia luzeagorik.

Batzuetan, galdetzen didate ea nola egin nuen nik, landa-eremuan hazita, literaturarako bidea. Egia esan, ez dakit; gauza bakarra dakit: Grimm anaien ipuinak irakurri ohi diren adinean, idazten hasi nintzela, eta, trenbide ondoko pendizean etzanda, nire pentsamenduak urrutira bidaltzen nituela, hiri eta lurralde ezezagunetara eta artean ikusi gabea nuen itsasora, zeinak han, zeruertz urrutian, Lurraren zirkulua ixten baitzuen. Itsasoz, hareaz eta itsasontziz beterik zeuden beti nire ametsak, baina gerra heldu zen orduan, eta ametsaz mukurua izandako mundu fantasiatzeko hura benetako munduak ordeztu zuen, eta han ez zegoen ametsik batere, erabakiak hartu beharra baizik.

Gerora etorri ziren gauza asko eta asko ez nintzen desiratzen ere ausartzen: unibertsitateko ikasketak, bidaiak, aldizkari eta egunkarietan lan egiteko aukera, baita lan egonkor bat ere, irratian. Bizitza bateko ohiko geltokiak dira horiek guztiak, beste askoren berdintsuak [...].

Hor da, halaber, eragin eta eredu literarioei buruzko galdera, zer giro literarioekin identifikatzen duen norberak bere burua. Askok irakurri nuen urte askoan; poeta berrien artean, Gide, Valéry, Éluard eta Yeats ditut gustukoak, eta pentsatzekoa da zerbait behintzat ikasiko nuela haiengandik. Baina, azken batean, sorterriko mundu mitoz betetako hura da nagusi nigan oraindik; sorterriko hura, bai, zeina bere buruaz hain jabetuta ez dagoen Austria bat baita niretzat, hizkuntza askoz egina eta muga askok zeharkatua.

Poeta gisa da batik bat ezagun Bachmann (1926-1973). Hogeita sei urte besterik ez zuelarik, Gruppe 47³ taldearen poesia-sari nagusia irabazi zuen, eta urte hartan bertan argitaratu zuen

2. Jatorrizkoak «windische» dio; izen hori eman izan zaie Austriako esloveniera-hiztunei.

3. Bigarren Mundu Gerraren ostean alemaniar eta austriar idazle eta kritikari batzuek osatutako taldea, gerra ondoko alemanezko literaturari buruzko hausnarketa bultzatu zuena.

bere lehenengo poema-liburua, 1953an.⁴ Handik hiru urtera, 1956an, bigarren —eta azken— poema-liburua argitaratu zuen.⁵ Hala ere, idatzi zuen gerora ere poema solterik, eta bera hil eta urte askora argitaratu ziren beste liburu batean (2000).⁶ Kritikarien esanetan, Bigarren Mundu Gerraren ondoko poeta germanofono onenetako bat da Bachmann, Paul Celanekin batera. Bachmannek poemen idazkeraz esandako hitz bi ekarri ditut hona (Bachmann, 1981: 102):

Poemak idaztea gauzarik zailena da niretzat, zeren formak, gaiak eta hiztegiak bat egin behar baitute; izan ere, denboraren erritmoari jarraitu behar diete poemek, eta, aldi berean, iragana, oraina eta geroa biltzen dituen gure bihotzeko kontu zahar eta berri guztiak ordenatu.

Edonola ere, 1957tik 1973an hil zen arte, poesia utzi eta prosa-lanak idatzi zituen gehienbat. Bizi zelarik, askotan galdetu zioten zergatik utzi zion poesia idazteari. Hona 1963an kaze-tari bati emandako erantzuna (Koschel eta Von Widenbaum, 1983: 40):

Poesia idazteari utzi nion, zeren une batetik aurrera iruditu baitzitzaidan poemak idazteko «gai» nintzela, nahiz ez sentitu poemarik idazteko bulkadarik. Eta ez dut berriz idatziko poemarik, harik eta ziur egon arte benetako zerbaiti dagokiola. Arriskurik gabe idaztea baliorik gabeko literatura batekin aseguru-kontratu bat sinatzea da.

Poesiatik prosarakoa ez zen izan, ez, edonolako jauzia. 1950eko hamarkadan zehar eta 1960koaren hasieran Bachmannen poesiari gorazarre eta ohore egindako kritikari askok ez zuten gogo onez hartu jauzi hura; desegokitzat jo zuten ordura arte poetari aitortutako talentu literario apartarako. Bachmannen prosa-lan berrietan, desagertuak ziren kritikari haiek famatutako poemen hermetismo eta seriotasun dotorea, eta, haien ordeaz, «Frauengeschichten» —emakumeen istorio— hutsal batzuk idatzi omen zituen Bachmannek, indar narratiborik, muinik, ganorarik eta esanahirik gabeak; *Aldibereko* bildumako istorioetan, esaterako, ile-apaindegitik atera berritan euriak makillajea eta orrazkera hondatzen dizkion emakume bat; erdiitsua izan arren betaurrekoak jarri nahi ez dituen beste emakume bat, hala errealitatea ez ikusteko; amaginarreba bisitatzera joaten den eta harekin gero eta ordu gehiago ematen dituen beste bat... Kritikariek ez zituzten halako gaiak espero, antza, Heideggerri buruzko doktoretasi bat idatzi ondoren Frankfurteko Unibertsitatean europar literatura modernoari buruzko hitzaldi-sorta gogoangarria eman, eta, hogeita zazpi urte besterik ez zuela, Alemaniako eta Austriako literatura-sari handienak irabazi zituen emakume batengandik.

Bachmannen prosaren hizkuntza ere ez zitzairen askorik gustatu. Haren poesia moderno garratz eta lakonikoa prosa subjektibo, digresiozale, eguneroko eta hutsal batek ordeztu omen

4. Jatorrizko izenburua: *Die gestundete Zeit*. Susak argitaraturiko Munduko Poesia Kaierak (MPK) bilduman, Bachmannen poema-antologia bat argitaratu zen 2015ean (bildumako 10. alea), Nagore Tolosak itzulia, eta *Gerora utzitako denbora* izenburuaz euskaratu zen.

5. Jatorrizko izenburua: *Anrufung des Grossen Bären*. MPK bildumako itzulpenean, *Hel-deia Hartz handiari*.

6. Jatorrizko izenburua: *Ich weiss keine bessere Welt*. MPK bildumako hitzaurrearen itzulpenean, *Ez dut mundu hobirik ezagutzen*.

zuen. Izan ere, ausart jokatu zuen Bachmannek: ez bakarrik emakumeei buruz idatzi zuelako, baizik eta, hizkuntzaren bidez, ahots egonkorrik gabeko eta munduarekiko harreman errazik gabeko emakumeak aukeratu zituelako.

1961ean lehenengo prosa-lana publikatu ondoren, 1964tik aurrera, bere prosa-proiektu handiengan hasi zen lanean, *Todesarten* [Hiltzeko erak] izenburu orokorreko zikloan, baina ziklo horretako nobela bakarra amaitzea lortu zuen azkenean, *Malina*, 1971n argitaratua. Hurrengo urtean plazaratu zuen *Aldibereko* (*Simultan*, jatorrizkoan) istorio-bilduma, 1972an, hil baino hilabete batzuk lehenago. Bost istoriok osatzen dute bilduma: «Aldibereko», «Arazoak, arazoak», «Begi zorionekook», «Zaunka» eta «Aintzirarako hiru bide». Liburua 1972an argitaratu arren, lehenago idatziak dira ipuin gehienak, 1968tik aurrera, eta batzuk («Aldibereko», eta «Begi zorionekook», adibidez) irratian edo irakurraldi publikoetan eman zituen argitara Bachmannek aurreneko aldiz. Luze-laburrari dagokionez, berriz, «Aintzirarako hiru bide» da luzeena (liburu erdia ia).

Todesarten proiektua prestatu bitartean ezin aurrera eginik zebilela apailatutako albo-lan gisa idatzi zituen Bachmannek liburuko istoriook (Koschel eta Von Widenbaum, 1983: 103):

Nobelarekin batera, istorio batzuk ere idatzi nituen, nobelatik pixka bat ihes egiteko, oso nekagarria baitzitzaidan. [...] Nolabait esatearren, nobela idatzi bitartean bururatu zitzaizkidanak baina nobelan lekurik ez zutenak istorioetara eramane nituen.

Istorio «komiko» samarrak idaztea omen zuen helburu, eta hasieran *Wienerinnen* [Vienar emakumeak] pentsatu zuen liburuaren izenburu orokor gisa. Izan ere, Vienako bost emakume dira protagonista nagusiak, ipuin bakoitzean bat. Gero, ordea, *Simultan* (*Aldibereko*, euskaraz) izenburu orokorra aukeratu zuen, liburuko lehenengo ipuinaren izenburua, alegia. Ipuin horretako protagonista nagusia aldibereko interprete bat da, hau da, adiera profesionalean dago erabilia hor «aldibereko» hitza, neurri batean behintzat; baina gainerako ipuinetan ere garrantzitsua da aldiberekotasuna, pertsonen artean batera —aldi berean— sortzen diren, eta hertsiki loturik dauden, pentsamendu- eta sentimendu-anabasa eta horrek eragindako komunikazio-ezintasuna baitira liburuko bost istorioetako gai nagusiak. Honela azaldu zuen Bachmannek berak (1995):

Aldibereko izenburuak erakutsi nahi du itzulpena ezinezkoa dela egiatan, pertsona batek ezin duela benetan itzuli beste batek pentsatzen eta sentitzen duena. Erakutsi nahi nuen nola ikusten den hori nik ezagutzen dudan mundutik, eta zein diren mundu horretako ohiturak. Gaur egungo emakumeak dira, eta justizia merezi dute, baita haien arteko tentelenak ere. Ez dira, noski, nik ezagututako emakumeak, hainbat emakumeren ezaugarriak daude nahasita, eta liburuak omenaldi bat izan nahi du Europako emakumerik ederren eta liluragarrienarentzat. [...] Liburuko emakumeek nigandik hartu dute kintenkeria, espiritua, xarma eta, batez ere, etsipen sinesgaitz moduko bat munduak eskaintzen duen etorkizun ustez itzaropentsu baten aurrean.

Paper-ertz batean egindako bozeto moduko batzuk dira ipuinok Bachmannentzat, eta, emakume batzuen erretratua egiteaz gainera, garai jakin bateko ohiturak ere erakutsi nahi izan zituen.

Ipuin independenteak dira denak, baina egitura zikliko bat osatzen dute denen artean. Lehenengo ipuina («Aldibereko») eta azkena («Aintzirarako hiru bide») liburuaren bizkarrezurra dira: ipuin horietako bi emakume protagonistak profesional arrakastatsuak dira —aldibereko interpretea bata, kazetari eta argazkilaria bestea—, eta kontraste nabarmena egiten dute beste hiru istorioetako emakumeekin, zeinak nartzisismo hutsalean, beldurrean eta errealitatea ukatzeko ahaleginean katramilatuta baitaude. Azken ipuinean, gainera —zikloa itxiz nolabait—, aurreko ipuinetako pertsonaia ugari ageri dira, zeharka bada ere (bigarren eta hirugarren ipuinetan ere bada halako agerraldi labur bana).

Sar gaitezen orain *Aldiberekoren* itzulpen-prozesuan. Saiatuko naiz itzuli ahala topatutako zailtasun batzuen berri ematen, ipuinez ipuin, eta horiei emandako irtenbidea azaltzen. Dena dela, itzulpenaren zailtasun formalez harago, tonu egokia bilatzea izan da erronkarik handiena liburu honetan. Austriako bost emakume, bost ahots, bost testuinguru, denak Bachmannen esku eta begi zolietatik atereak. Arotza banintz bezala, hitz, esaldi, paragrafo, juntagailu, lokailu, torloju, bihurkin, karraka eta gainerako trepetak gerrian lotu, eta tonu eratsuaren bila egindako bidaiaren kronika bat da hau.

Itzulpen-prozesua

Liburuaren izenburua

Liburua itzultzen hasterako, izenburuari erreparatu nion: *Simultan*, jatorrizkoan. Esan bezala, bildumako lehen ipuinaren izenburua da, eta bi erreferentzia nagusi dituela aipatu dugu: bate-tik, ipuineko emakume protagonistaren lanbidea, aldibereko interpretea baita; bestetik, liburu-ko istorio guztiak zeharkatzen dituen komunikazio-ezina, guztiongan aldi berean harilkatzen diren pentsamendu eta sentimenduak komunikatu ezina.

Inguruko erdaretan nola itzuli zuten begiratu nuen gero:

| DE (jatorrizkoa) | EN | FR | ES |
|------------------|--------------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|
| <i>Simultan</i> | <i>Three Paths to the Lake</i> | <i>Trois sentiers vers le lac</i> | <i>Tres senderos hacia el lago</i> |

Hau da, jatorrizko izenburuaren ordez, bildumako azken ipuinaren izenburua aukeratu zuten denek liburuaren izenburu orokor gisa. Ez dakit zein den horretarako arrazoi zehatza, baina, kontuan harturik azkena dela liburu-ko ipuinik luzeena (liburu erdia), pentsa liteke argi-taletxeek erabaki zutela azken ipuin horri ematea pisurik handiena eta, beraz, haren izenburua aukeratzea bildumaren izenburu orokor gisa. Horren erakusgarri, aipatzekoa da gaztelaniaz,

Alfaguarak 1987an bilduma osoa argitaratu ondoren, azken ipuina soilik jasotzen duen edizio bat argitaratu zuela Siruelak 2011n.

Hori guztia kontuan harturik, eta editoreekin kontsultatu ondoren, jatorrizkoari jarraitzea erabaki nuen, inguruko hizkuntzek hartutako erabakia gorabehera, eta, beraz, *Aldibereko* izenburua aukeratu nuen bildumarako.

1. ipuina: «Aldibereko»

Bikote batek Italiako hegoaldera egiten duen auto-bidaia labor bat aitzakia hartuta, emakume baten pentsamendu, sentimendu, iritzi, gogoeta, isilune eta egonezinen berri ematen du lehenengo ipuinak.

Jatorrizko liburua ireki eta lehenengo ipuina irakurtzen hasi nintzenean, berehala konturatu nintzen ederki izerdituko nintzela hura itzultzeko, ipuin hori baita, formalki, liburuko erradikalena: zehar-estilo librean idatzia dago oso-osorik, eta batere beldurrik gabe nahasten ditu Bachmannek burutazioak, elkarrizketak, deskribapenak, bakarrizketak... paragrafo berean eta inolako marka tipografiko bereizgarririk gabe. Ipuinaren lehenengo paragrafoa ekarri dut hona, jatorrizkoa eta euskarazko itzulpena, horren erakusgarri (euskarazkoan, letra lodiz markatu ditut kontaketa-mota batetik besterako jauziak) (*Aldibereko*, 2019: 25):

| DE | EU |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Bože moj! hatte sie kalte Füße, aber das mußte endlich Paestum sein, es gibt da dieses alte Hotel, ich versteh nicht, wie mir der Name, er wird mir gleich einfallen, ich habe ihn auf der Zunge, nur fiel er ihr nicht ein, sie kurbelte das Fenster herunter und starrte angestrengt seitwärts und nach vorne, sie suchte den Weg, der nach rechts, credimi, te lo giuro, dico a destra, abbiegen mußte. Dann war es also das NETTUNO. Als er an der Kreuzung verlangsamte und den Scheinwerfer aufblendete, entdeckte sie sofort das Schild, angeleuchtet im Dunkel, unter einem Dutzend Hotelschildern und Pfeilen, die zu Bars und Strandbädern wiesen, sie murmelte, das war aber früher ganz anders, hier war doch nichts, einfach nichts, noch vor fünf sechs Jahren, nein wirklich, das ist doch nicht möglich.</p> | <p>Bozhe moi! Hotz-hotzak zeuzkan oinak, baina Paestum izan behar zuen hark, azkenik; han zen hotel zahar hura, izena ez gogoratzea ere..., berehala etorriko zaidan, <i>pentsatu zuen emakumeak</i>, mihi-puntan zaukanat, baina ezin gogoratu izena. Autoko leihoa jaitsi, eta arreta handiz begiratu zuen kanpora, albo baterantz eta aurrerantz, bidearen bila, bai, credimi, te lo giuro, dico a destra, eskuinerantz egin behar zuen bidearen bila. Han zegoen, bai: NETTUNO. Gizonak bidegurutzean abiadura moteldu eta argiak piztu zituenean, berehala ikusit zuen kartela, ilunpean argizatua, dozena bat hotel-kartel eta taberna eta hondartzetarako bidea erakusten zuten gezi anabasaren azpian, oso bestelakoa zuan lekua orduan, <i>murmurikatu zuen emakumeak</i>, hemen ez zegoan ezer, ezertxo ere ez duela bospasei urte, benetan, ez duk posible.</p> |

Errusierazko esapide batekin hasten da paragrafoa (*Bozhe moi!*; euskaraz, «Jainko maitea!»). Gero, 3. pertsonan emandako deskribapen batekin jarraitzen du (*hotz-hotzak zeuzkan oinak...*); hurrena, bere buruarekin hasten da (*izena ez gogoratzea ere...*, *berehala etorriko zaidan [...]*, *mihi puntan zaukanat...*); berriz itzultzen da gero 3. pertsonara (*arreta handiz begiratu zuen...*); elkarrizketara jotzen du gero, nahiz ez egon elkarrizketa gisa emana formalki, alemanetik italiarara aldatuz gainera (*bai, credimi, te lo giuro, dico a destra...*); 3. pertsonan emandako beste deskribapen bat dator gero (...*berehala ikusi zuen kartela...*); eta elkarrizketa batekin amaitzen du (*oso bestelakoa zuan lekua orduan [...]* *hemen ez zegoan ezer [...]* *ez duk posible*).

Hasieran, zaila gertatzen da irakurtzean pertsona- eta ikuspegi-nahasketa hori. Hori gertatzen da jatorrizkoan eta, beraz, hori bera «gertatu» behar zen euskaraz ere. Zenbateraino, baina? Hori zen kontua. Non jarri jatorrizkoarekiko leialtasunaren eta ulergarritasunaren arteko muga. Kontu zaharra, inondik ere. Eta, topikoa ez hausteko, traizio egin nion jatorrizkoari, lehenengo paragrafotik hasita: aurreko koadroan letra etzanean ageri den «pentsatu zuen emakumeak» ez dago jatorrizkoan; nik erantsia da. Itzulpenaren lehenengo zirriborroan, ez nuen ezer erantsi; bigarren bueltan, ordea, zuzentzaileek egindako oharrak kontuan hartuz, erantsi egin nuen, iruditu baitzitzaidan makuluren bat behar zela hor liburuko lehenengo paragrafoa ulergarri(ago) egiteko eta istorioa zedarrizteko. Ikusirik, gainera, paragrafoaren amaiera aldera idazleak berak «murmurikatu zuen emakumeak» idatzi zuela, iruditu zitzaidan ez zela bekatu guztiz barkaezina. Asmatu nuen ala ez beste kontu bat da, noski.

Ikuspegi-nahasketaz gainera, bada beste zailtasun bat lehenengo ipuinean: istorioko bi pertsonaia nagusiek (emakume bat eta gizon bat) ez dute izenik hasieran. Alemanezko jatorrizkoan, 3. pertsonako izenordainen bidez daude emanak: *er* (*hura*, gizona), eta *sie* (*hura*, emakumea). Jatorrizkoan, beraz, erraz hautematen da nor ari den hizketan, emakumea ala gizona. Buelta ugari eman nizkion kontu horri (ez da oso kontu originala, badakit, ohikoa bai-zik gure inguruko erdaretatik euskarara itzuli behar dugunean). Aukera bat zen Xabier Olarrak *Ulisesen* itzulpenean hartutako bide bera hartzea: *hura/húra* eta *bera/béra* pareak erabiltzea, azentuduna emakumezkoaren marka gisa baliatuta. Honela azaltzen du *Ulisesen* hitzaurrean berak hartutako erabakia (Joyce, 2015: 8):

Euskarak, oraingoz, ez du modurik [...] gure inguruko hizkuntzek berez egiten dutena izenordain soilez bereizteko: *helshe, él/ella, il/elle...* Kasu horietan, nola edo halako konponbide batera jo behar izan dut, eta erabaki dut emakumezkoaren marka azentu bat izatea: *hura/húra* edo *bera/béra* erabili dut, beraz, deklinabide osoan. [...] kasu askotan, *Ulisesen* beraren barne-kodearengatik, ez zego-kion itzultzaileari zehaztea idazleak zehaztasun gehiago gabe *helshe* bidez izendatzen duena nor zen. Baina, beste alde batetik, jatorrizkoak ematen duen informazioa baino gutxiago ematea ere ez zuen zilegi, eta hori izan da aurkitutako erdibidea, edo gaitzertiko soluzioa, nahi baduzue.

Olarrarrekin hitz egin ondoren, baina, iruditu zitzaigun aukera hori heterodoxoegia zela Literatura Unibertsaleko bildumarako, eta, beraz, aukera hori baztertu, eta «gizona» eta «emakumea» hitzak erabili nituen istorioan pertsonaien izenak agertzen diren arte (Nadja eta Frankel).

Hautu astunagoa, «gaitzertiko soluzioa» ziur asko, baina, tira, onartu beharko dugu hizkuntza bakoitzak bere morrontzak dituela. Hori esan nion behintzat neure buruari, eta aurrera egin nuen. Astuntasun hori nolabait arintzeko, erabaki nuen —hori ere zuzentzaileekin adostuta— hitanoa erabiltzea pertsonaien arteko elkarriketetan, bai eta haien bakarrizketetan ere. Hori behintzat abantaila du euskarak inguruko erdarekin alderatuz gero, Olarrak ondo azaltzen duez aipaturiko hitzaurrean (Joyce, 2015: 9):

Testuan nahasian daudenez burutazioak, gertaerak eta haiei buruzko ikuspegiak, euskal irakurlea [forma alokutiboan erabilerari esker] berehala konturatuko da narrazioaren ildoaren nondik norakoaz.

Hitanoaren erabilera dela eta, bada beste kontu bat, hori ere Olarrak hitzaurrean aipatua: nola eman emakumeen bakarrizketak hikaz, toka ala noka. Haren arrazoibideari jarraitu diot nik ere *Aldiberekon* (Joyce, 2015: 9):

[...] Mollyk noka egiten dio bere buruari, nik hala erabakita. Ortodoxoenek beharbada esango dute bakarrizketa horrek, Molly bere buruari zuzenean ari denean salbu, toka behar duela. Baliteke. Baina kontuan izanik Molly momentu horretan, goizeko ordu txikietan «bere buruarekin *mano-mano* ari denean», Leopold Bloom aldamenen duela, toka egingo balu, senarrari ari zaiola emango luke. Eta horrek, noski, diskurtsoaren funtsa aldatuko luke, ezinbestean.

Horixe bera gertatzen da Bachmannen lehenengo ipuinean Nadja eta Frankel pertsonaiekin. Nadjak noka egiten dio bere buruari, bestela uler bailiteke Frankeli ari zaiola hizketan, istorio guztian elkarrekin baitaude biak. Eta, irakurlea behar baino gehiago ez nahastearren, eredu horri berari eutsi nion ipuin guztietan: beraz, emakumeen barne-bakarrizketa guztiak noka daude emanda liburuan.

Lehenago esan dugu 1. ipuineko pertsonaia nagusia, Nadja, interpretea dela lanbidez, eta pertsonaiaren hitz egiteko eran ere islatzen da hori. Jatorrizko alemanarekin batera, errusierazko, italierazko, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko hitzak tartekatzen ditu, lehenengo paragrafoko adibidean erakutsi bezala. Itzulpenean horiekin nola jokatu erabakitzeko, jatorrizkoari erreparatu nion aurrena; izan ere, alemanez ez dago inolako marka tipografikorik hizkuntzak bereizteko: letra biribilean dago idatzia dena, hizkuntza guztiak maila berean hartuta. Gure inguruko beste erdarei erreparatu nien gero (koadro batean jaso ditut guztien estrategiak, adibide baten bueltan):

| DE | EN | FR | ES |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Hizkuntza guztiak letra biribilean, ezer markatu gabe. | Jatorrizkoan ingelesez ageri dena, letra etzanean; alemanetik itzulitakoa (jario nagusia), letra biribilean. Gainerako hizkuntzak, letra biribilean. | Jatorrizkoan alemanez ez dagoen guztia, letra etzanean. | Hizkuntza guztiak letra biribilean, ezer markatu gabe (jatorrizkoan bezala). |
| Pronto, pronto, sicher eine sehr schlechte Verbindung, Maratea-Rom, Nadja's speaking, you remember, to make it short, I went with Mr. Frankel to Maratea, yes, no, pronto, can you hear me now, a very small place in Calabria, I said Calabria, es würde ganz einfach gehen... | Pronto, pronto, certainly a terrible connection, Maratea-Rome, <i>Nadja's speaking, you remember, to make it short, I went with Mr. Frankel to Maratea, yes, no, pronto, can you hear me now, a very small place in Calabria, I said Calabria, it would be quite simple...</i> | <i>Pronto, pronto, à coup sûr une très mauvaise communication, Maratea-Rome, Nadja's speaking, you remember, to make it short, I went with Mr. Frankel to Maratea, yes, no, can you hear me now, a very small place in Calabria, I said Calabria, tout se passerait simplement...</i> | Pronto, pronto, seguro que la línea Maratea-Roma sería pésima. Nadja's speaking, you remember, to make it short, I went with Mr. Frankel to Maratea, yes, no, pronto, can you hear me now, a very small place in Calabria, I said Calabria, aquello sería facilísimo... |

Euskarazko itzulpenerako, jatorrizkoari jarraitzea erabaki nuen. Hau da, ez nituen letra etzanez idatzi beste hizkuntzak jario nagusitik bereizteko (euskarazkotik, alegia), iruditu baitzitzaidan tipografikoki bereiztea hizkuntzak plano desberdinetan jartzea zela eta, beraz, pertsonaia aldibereko interpretea dela kontuan harturik, haren ezaugarri berezko bat urardotzea. Honela eman nuen, beraz, goiko adibideko itzulpena (*Aldibereko*, 2019: 46):

| EU |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Hizkuntza guztiak letra biribilean, ezer markatu gabe (jatorrizkoan bezala). |
| Pronto, pronto, oso kaskarra izango zen Maratea-Erroma telefono-linea, Nadja's speaking, you remember, to make it short, I went with Mr. Frankel to Maratea, yes, no, pronto, can you hear me now, a very small place in Calabria, I said Calabria, oso erraza izango zen... |

Gainera, iruditu zitzaidan hizkuntzak tipografikoki ez bereizteak laguntzen zuela Nadja-ren ezintasun esplizitu bat grafikoki ere erakusten: interpretea izanik, beste pertsona batzuen solasak beste hizkuntza batean erreproduzitzea du lanbide. Baina gaitasun tekniko horrek ez

dio balio hitzen benetako esanahia ulertzeko, ezta bere hizkuntzako hitzena ere; hizkuntza-erbestera bat da Nadja, bere burua esaldi hutsen manipulazaila gisa ikusten duena. Hona zer dioen bere buruaz (*Aldibereko*, 2019: 39):

Zeinen mekanismo bitxia zen bera! Ideia propio bakar bat gabe bizi zen, besteen esaldietan murgilduta, eta, lo-ibiltari baten antzo, esaldi haien berdinak baina hots desberdinekoak lotu behar zituen instant batean, «machen» entzun eta to make, faire, fare, hacer eta dielat bihur zezakeen berehala, hitz bakoitza sei aldiz biraraz zezakeen gurgil batean, baina kontua zen ez pentsatzea «machen»ek benetan machen, to make, faire, fare, hacer eta dielat esan nahi zuela, horrek burua iragazgaitz bihur baitziezaiokeen, eta kontuz ibili behar zuen halako batean hitz-jausi hark ez zezan azpian harrapatu eta lurperatu.

Liburuko beste ipuinetan, aldiz, ohiko moldeari jarraitu nion; hau da, letra etzanez eman nituen jatorrizkoan beste hizkuntzaren batean agertzen diren hitzak, iruditu baitzitzaidan kasu horietan hizkuntza-nahasketa ez zegoela pertsonaia jakin baten nortasunari hain lotua.

Puntuazioari buruz ere, bi hitz esan nahi nituzke. Jatorrizkoaren puntuazioa oso arindua dago alemaneko puntuazio estandarren aldean; Bachmannek batere beldurrik gabe lotzen ditu esaldiak koma hutsez. Eta ez da harritzekoa, noski, emakume baten burutazioen, gogoeten elkarrizketen eta kontakizunen bilduma ordenarik gabea baita ipuina. Pertsonaiak munduarekiko daukan ondoeza hizkuntzaren bidez islatzen du Bachmannek (bestelako azalpenik eman gabe), eta puntuazioan ere islatzen da hori. Euskaraz ere, beraz, arindua behar zuen puntuazioak, eta hala eman dut; hala ere, esango nuke euskarazko puntuazioa ez dela jatorrizkoa bezain arina. Hona adibide bat (*Aldibereko*, 2019: 26):

| DE | EU |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Er hatte in Hietzing gewohnt, dann brach er ab, etwas mußte also noch in Hietzing geblieben sein, schwer auszusprechen, und sie war aufgewachsen in der Josefstadt, Wickenburggasse, dann kam das unvermeidliche namedropping, sie tasteten das Wiener Terrain ab, fanden aber keine gemeinsamen Leute, die ihnen weitergeholfen hätten, die Jordans, die Altenwyls, von denen wußte sie natürlich, wer die waren, aber kennengelernt, nie, die Löwenfelds kannte sie nicht, Deutschs auch nicht, ich bin schon zu lange weg, mit neunzehn bin ich weg, ich spreche nie mehr deutsch, nur wenn es gebraucht wird, dann natürlich, aber das ist etwas anderes, für den Gebrauch.</p> | <p>Gizona Hietzingen bizi izana zen, baina, halako batean, alde egin zuen handik, nahiz eta bazen zerbait han gelditu zena nonbait, adierazten zaila zen zerbait; bera, berriz, Josefstadten hazia zen, Wickenburggassen. Ohiko name dropping saihetsezina etorri zen gero, Vienako bazterrak korritu zituzten, baina topatu ez biek ezagutu eta elkarrizketarekin aurrera egiten lagunduko zien inor; jordandarrak, altenwyldarrak, bai, berak bazekien, jakin, nor ziren, baina ezagutu ez, ez, löwenfeldarrak ere ez, ezta deushtarrak ere, denbora asko duk joan nintzela, hemeretzi urte nitian, eta ez nauk ia inoiz mintzatzen alemanez, nahitaezkoa denean baino ez, orduan bai, jakina, baina hori ez duk gauza bera, beharrak agindua.</p> |

Jatorrizkoaren puntuazioari erreparatuz gero, ikusten dugu dena koma bidez emana dagoela, eta puntu bakarra dagoela, bukaerakoa. Euskarazkoan, berriz, puntuazioa oso arindua egon arren Juan Garziak (2014) apailatutako gidako jarraibideen aldean, bi puntu eta koma eta bi puntu (bukaerakoa barne) daude paragrafoan.

2. ipuina: «Arazoak, arazoak»

Bigarren ipuineko protagonista Beatrix izeneko neska gazte bat da, ustez ile-apaindegira joatea eta lo egitea helburu nagusi eta ia bakartzat duena bizitzan (*Aldibereko*, 2019: 68, 81):

| EU |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Inork galdetu izan balio zer balioesten zuen gehien, zertan ematen zuen gustu-gustura denbora, zer amets eta desio zeuzkan, eta zer helburu bizitzan —eta berak galdera haiei erantzun izan balie, aukera benetan gertagaitza, bestalde— «lo egitea, besterik ez!», erantzungo zuen gogo bizi bezain logaletsu batez. |
| Baina bazen gauza bat Erichek ez zekiena [...] eta Beatrixek beste gizon bati sekula aitortuko ez ziona [...]: ile-apaindegian bakarrik zela zoriontsu, René ile-apaindegia zela gustura sentitzen zen munduko leku bakarra, eta gainerako guztiari egiten ziola uko hara joategatik, baita eguneroko otorduei ere. |

Izenburuko *arazo* hitzak eta, are, hitzaren errepikapenak ironia-puntu bat erakusten du, ipuineko gai nagusia pertsonaiaren nartzisismoa baita. Nartzisismo hori, ordea, ez du narra-tzaile batek azaltzen, pertsonaiak berak baizik. Bachmann pertsonaiaren barruan sartzen da, eta hari hitz eginarazten dio, bestelako azalpenik eman gabe.

Ipuina itzultzen hasi nintzenean, pertsonaia desatsegin hori arbuiatzeko tentazioari eutsi behar izan nion aurrena. Izan ere, paparretik heldu, eta astindu eder bat emateko gogoia ematen du Beatrixek tarteka. Pixkanaka, ordea, ipuina gehiagotan irakurrita, ulertu nuen pertsonaia «moralki» desatsegin horrek itxuraz baino askoz mami gehiago zeukala eta, azken batean, ipuineko beste pertsonaia gehienak baino «azkarragoa» zela.

Lehenengo ipuinean ez bezala, bi pertsonaren arteko telefono-elkarrizketa labur batekin hasten da hemen istorioa, baina elkarrizketaren alde bat bakarrik ematen du Bachmannek, eta, beraz, bietako baten hizketa bakarrik «entzuten» du irakurleak. Hari dagokio elkarrizketaren beste aldea osatzea (*Aldibereko*, 2019: 67):

| DE | EU |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>»Dann um sieben. Ja, mein Lieber. Wäre mir lieber. Hochhauscafé. Weil ich zufällig. Ja, zufällig, einmal muß ich immerhin zum Friseur. Um sieben, so ungefähr denke ich mir, wenn ich rechtzeitig ... Was, ach so? Es regnet? Ja, finde ich auch, es regnet ja immerzu. Ja, ich mich auch. Ich freu mich.«</p> | <p>«Zazpietan, orduan. Bai, maitea. Nahiago nitek. Hochhaus kafetegian. Ustekabea, bai, noizbait joan behar ba ile-apaindegira. Zazpiak aldera, nik uste, garaiz ateratzen banaiz. Zer? Benetan? Euria ari al du? Bai, arrazoi duk, beti berdin. Bai, nik ere bai. Pozten nauk».</p> |

Hemen ez dago lehenengo ipuineko ikuspegi-nahasketarik, ezta ezinegonak eragindako erritmo bizirik ere. Elkarriketa baten bidez erakusten da hemen pertsona baten pentsamendu eta sentimenduen mundu nahasia (hasiera horrek hitzordu baten berri ematen du, erdizka bada ere, eta hitzordu horrek badu garrantzirik istorioak gero izango duen garapenerako).

Hasierako elkarriketa hori irakurtzean, ez dakigu oraindik nor ari den hizketan, baina idazleak komatxo artean mugatutako elkarriketa horren ondoren dioena irakurrita, badakigu Beatrix dela bi pertsona horietako bat (*Aldibereko*, 2019: 67):

Beatrixek, beste hitzen bat murmurikatu aurikularrean, eta eskegi egin zuen telefonoa.

Orrialde pare bat irakurri beharko ditugu ziur jakin arte elkarriketaren bigarren protagonista Erich izeneko gizon bat dela (*Aldibereko*, 2019: 69):

Munduari zerga moduko bat ordaintzearren bakarrik egin zuen hitzordua Erichekin.

Ipuina irakurri ahala, jakingo dugu Beatrix neska gazte bat dela eta Erich, berriz, gizon helduago bat, ezkondua. Maitale(-edo) dira, eta, nahiz itxuraz harreman horretako figura «ahula» Beatrix den eta Erich, berriz, figura «zentzuduna», istorioak aurrera egin ahala gero eta nabarmenagoa da Beatrixek pertsonaia sendo bat eraiki duela bizitzan aurrera egiteko eta, zinismoa eta manipulazioa lagun, itxurak egiten ikasi duela. Bera da harremaneko figura indartsua, bes-tela badirudi ere, eta Erich ustez zentzuduna gero eta gizagaixoago bihurtzen da ipuinak aurrera egin ahala.

Bien arteko harremanari erreparaturik, elkarriketetan zer tratamendu erabili izan zen itzulpenean hartu beharreko aurreneko erabakia: zuka ala hika? Maitale dira, baina, beste alde batetik, adin-tarte handia dago bien artean. Jatorrizkoan, *Du* tratamendua aukeratu zuen Bachmannek, lagunartekoa, gure hitanoaren parekoa nolabait (nahiz holakoetan arriskutsua den bi hizkuntza parekatzea). Zuzentzaileekin hitz egin eta proba pare bat egin ondoren ikusteko nola gelditzen zen istorioa sinesgarriago, hitanoa aukeratu nuen Beatrixen eta Erichen arteko elkarriketetarako. Elkarriketa horiek —ipuinen hasiera-hasierakoa izan ezik— narrazioaren erdian txertatuak ageri dira gehien-gehienetan, marka bereizgarririk gabe (*Aldibereko*, 2019: 81):

| DE | EU |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Nein, beteuerte sie, aber nur einmal, um den guten Erich nicht zu verstören, Sorgen mache ich mir da gar keine, und um welche Zukunft denn? Dann sagte sie zärtlich: Was wollen wir uns beunruhigen wegen der Zukunft? Schau doch, die Gegenwart ist schon eine zu schlimme Belastung für dich, und ich möchte nicht, daß du auch noch an mich denkst, wir wollen lieber versuchen, an Guggi zu denken. Was sagt der Professor Jordan? Bitte, verschweig mir nichts, zwischen uns darf es einfach keine Geheimnisse geben. Und damit hatte sie Erich wieder bei Guggi und dieser langwierigen Behandlung, der neuen Hoffnung und den alten Befürchtungen.</p> | <p>Ez, esan zuen irmo —baina behin bakarrik, Erich gizagaixoa ez aztoratzearren—, ez diat batere kezkarik, eta, gainera, ea, zer etorkizun? Eta erantsi zuen txeratsu: zergatik estutu etorkizunagatik? Egin kontu, oraina nahikoa zama astuna duk hiretzat dagoeneko, eta ez diat nahi, horretaz gainera, nigatik ere kezkatzea; saia gaitezen Guggirengan bakarrik pentsatzen, beste ezertan ez. Zer dio Jordan doktoreak? Ez niri ezer ezkutatu gero, mesedez, sekreturik ez gure artean. Eta, hala, Guggirengana itzultzen zuen Erichen gogo berriz, aspaldi hasitako tratamendura, itxaropen berri eta beldur zaharretara.</p> |

Narratzaileak nahasian darabiltza ikuspegi subjektiboa eta objektiboa; nolabait esateko, narratzaileak istorioan parte hartzen du, baina, aldi berean, distantzia hartuta formalki.

Bestalde, hautu lexiko bat eskatzen zuen ipuinak. Jatorrizkoan, Beatrixek behin eta berriz esaten ditu bi hitz: *grauenvoll* eta *Belastung* (adjektiboa lehenengoa, eta izena bigarrena). Testuinguru desberdinetan ageri dira, eta, beraz, gutxi-asko testuinguru guztietarako balioko zuten ordainak aukeratu behar nituen euskarazko itzulpenerako. Jirabira ugariren ondoren, *jasanezin* eta *zama* aukeratu nituen, hurrenez hurren. Hona hitz bakoitzaren bina adibide, testuingurua ikusteko (*Aldibereko*, 2019: 68, 70, 72):

| DE | EU |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>An diesem Morgen schlief sie aber nicht gleich ein, lag nur entspannt und glücklich vergraben da und dachte: Grauenvoll.</p> | <p>Goiz hartan, ordea, ez zen berehala lokartu; etzanda gelditu zen, goxo-goxo, lasai eta gustura ohean, baina bere artean pentsatu zuen: «jasanezina».</p> |
| <p>Grauenvoll war Beatrix' liebstes Wort, das sich regelmäßig einstellte, wenn sie an eine Sache weder zuviel denken, noch sie ganz vergessen wollte.</p> | <p>«Jasanezina», hori zen Beatrixen hitz gogokoena, maiz ateratzen zitzaion ez zuenean nahi askorik pentsatu zerbaitetan baina ezta guztiz ahaztu ere.</p> |
| <p>Sie sagte gern zu jemand: Das ist sicher eine schreckliche Belastung für Sie! Oder: Mein Lieber, ich versteh, ich weiß, das Ganze belastet dich doch so sehr, ich kenne das!</p> | <p>Gustura esaten zizkion honelakoak jendeari: Izugarrizko zama da hori zuretzat! Edo: Jakina, maitea, oso ondo ulertzen diat, bazakiat zerbaterainoko zama den hori hiretzat. Jakingo ez diat ba!</p> |

| | |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>An diesem Tag kam Beatrix auch dieses zweite Lieblingswort in die Quere, sie stieß sozusagen bei der geringfügigsten Bewegung, beim geringsten Gedanken mit den Schlüsselworten zusammen und merkte, daß alles grauenvoll und kompliziert war und daß sie unter einer Belastung litt.</p> | <p>Bere bigarren hitz gogokoena atera zitzaion bidera Beatrixi egun hartan: «zama»; nahikoa zen mugimendurik ñimiñoena, pentsamendurik hutsalena bi hitz gako haiekin estropezu egiteko, eta ohartzen zen dena jasanezina eta zaila zela, eta sekulako zama zeukala gainean.</p> |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

Eta hona hemen inguruko beste hizkuntzetan aukeratutakoak:

| EN | FR | ES |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>But this morning she didn't go back to sleep immediately; she lay there, relaxed and happily buried under the covers, thinking: How awful.</p> | <p>Mais ce matin-là elle ne se rendormit pas tout de suite, elle se contenta de rester couchée, détendue et enfouie dans le bonheur, et elle pensait: atroce.</p> | <p>Aquella mañana, sin embargo, no volvió a dormirse en seguida, sólo se arropó relajada y feliz y pensó: «espantoso».</p> |
| <p>«Awful» was Beatrix's favorite word, and it came to her mind whenever she preferred not to dwell too deeply on something but didn't want to lose sight of it entirely, either.</p> | <p>Atroce était le mot préférée de Beatrix, et elle l'employait régulièrement quand elle ne voulait pas trop penser à une chose ni l'oublier tout à fait.</p> | <p>Espantoso era la palabra preferida de Beatrix, una palabra que le salía regularmente cuando no quería pensar demasiado en una cosa ni tampoco olvidarla del todo.</p> |
| <p>She liked to say to people: That must be a terrible burden for you! Or: My dear, I understand, the whole thing must really weigh you down, I know, I've been through it too!</p> | <p>Elle disait souvent : C'est sûrement un terrible fardeau pour vous ! Ou bien : Mon chéri, je comprends, je sais, tout cela représente pour toi un tel fardeau, je connais ça !</p> | <p>Le gustaba decirle a alguien: ¡Seguro que esto es un agobio terrible para usted! O bien: querido mío, lo sé, lo entiendo, todo esto te debe resultar tan agobiante, conozco estas cosas.</p> |
| <p>Today Beatrix's second favorite word crossed her path. The slightest movement, the most insignificant thought seemed to send her colliding with these key words, and she noticed that everything was awful and complicated and that she had a burden to bear.</p> | <p>Ce jour-là, le second de ses mots préférés vint lui aussi croiser le chemin de Beatrix, au moindre mouvement, à la moindre pensée, elle se heurtait pour ainsi dire aux mots clés et s'apercevait que tout était atroce et compliqué et qu'un fardeau l'accablait.</p> | <p>Esta segunda palabra preferida también se le cruzó a Beatrix aquel día; tropezaba, por así decirlo, con dos palabras clave al menor movimiento, al menor pensamiento, y advertía que todo era espantoso y complicado y que estaba sufriendo bajo una carga agobiante.</p> |

Ikusten denez, jatorrizko kategoria gramatikalak —adjektiboa (*grauenvoll*) eta izena (*Belastung*)— ez dira beti kategoria berekin eman beste hizkuntzetan. Beharren arabera, izena+aditza (EN: *burden/weigh down*) edo izena+adjektibo (ES: *agobi/agobiante*) konbinazioak erabili dira. Errazago ikusteko, koadro batean bildu ditut ordain guztiak:

| DE | EN | FR | ES | EU |
|-----------------------------------|-----------------------------------------------------------|-------------------------------|--------------------------------------------------------------|-----------------------------------|
| grauenvoll (adjektiboa) | awful (adjektiboa) | atroce (adjektiboa) | espantoso (adjektiboa) | jasanezina (adjektiboa) |
| Belastung (izena) | burden (izena) weigh down (aditza) | fardeau (izena) | agobio (izena) agobiante (adjektiboa) | zama (izena) |

3. ipuina: «Begi zorionekook»

Hirugarren ipuineko pertsonaia nagusia, Miranda, bigarren ipuineko Beatrixen ifrentzua dela esan daiteke. Beatrixek, inguruak zer eskaintzen dion ikusirik, sentsibilitate zorrotz zinikoan bilatzen du babes, eta Mirandak, berriz, miopia baliatzen du begietatik urrun duenari ez erreparatzeko eta, are, errealitatea guztiz ukatzeko. Inguruko itsuskeriatik babesteko, ez du betaurrekorik jantzi nahi, erdiitsua izan arren. Baina betaurrekoak ez janztea ez da banitate-kontua, edo ez erabat behintzat, giza existentzia penagarriak eragindako hipersentikortasunaren ondorio baizik (*Aldibereko*, 2019: 114):

| EU |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Zuzenketa ñimiño baten laguntzaz —leiar dibergenteak eta, haiei eusteko, sudur gainean ipinitako betaurreko-armazoi urre-kolore bat—, infernua ere ikus dezake Mirandak. Eta infernu horretako lazturak ez dira sekula amaitu berarentzat. Horregatik, atezuan egoten da beti, eta, jatetxe batean dagoelarik, ingurura begiratzen du menua irakurtzeko behar dituen betaurrekoak jarri aurretik, eta kalean ere berdin, taxi bati gelditzeko keinua egiten badio; bestela, kontuz ibili ezean, irudi beldurgarriak sartzen zaizkio ikuseremuan, gero sekula ahaztu ezin dituenak: haur elbarri bat, nano bat, edo emakume besomoz bat. Eta irudiok, gainera, beste askoren artean deigarrienak baino ez dira, nabarmenenak besterik ez, umiliazioz edo delituz blaituriko aurpegi-samalda dohakabe, gaizto edo madarikatu baten erdian; amesgaizto-eragile baino ez diren aurpegi batzuen erdian. Eta aurpegi horiei darien keru eta itsuskeria-emanazio globalak malkoz betetzen dizkiote begiak, eta lur finkoa galarazten oinpean, eta, hori saihesteko, arin-arin irakurtzen du jatetxeko menua, eta, kalera atera orduko, saiatzen da, di-da, taxi bat auto arrunt batetik bereizten; eta berehala kentzen ditu gero betaurrekoak: informazio apur bat baino ez du behar. Ez du jakin nahi gehiago. |

Historioak aurrera egin ahala ikusiko dugunez, Miranda ez da gai munduari buruzko bere ikuspegi subjektiboari eusteko: maitaleak abandonatuta, kafetegi bateko beirazko ate berarentzat ikusezinaren kontra joko du, eta kolpeak odolduta utziko du, umilduta, sinbolikoki itsututa eta, Beatrix bezala, sufrimendua hitzez adierazteko ezgai.

Ohar bat egin nahi nuke ipuinaren izenburuaz: Bachmannen *Aldibereko* bilduma aztertzen duen doktore-tesi batek jasotzen duenez (Shieh, 1999: 89), Goetheren *Faustoren* bigarren zatiko bosgarren ekitalditik hartua da «Ihr glücklichen Augen» jatorrizko izenburua:

Ihr glücklichen Augen,
Was je ihr gesehn,
Es sei wie es wolle,
Es war doch so schön

Egia esan, liburuaren itzulpena bukatu ondoren izan nuen horren berri, hitzaurrea prestatzen ari nintzela. Armiarmaren webgunean ikusi nuen bazela *Faustoren* euskarazko itzulpen bat, aita Onaindiarena, 1986an Igarri argitaletxean argitaratua, baina, edizio digitalik aurkitu ez nuenez, ez nuen aurrera egin, eta, beraz, itzultzerakoan jarritako izenburuari eutsi nion («Begi zorionekook»), Onaindiak nola itzuli zuen egiaztatu gabe. Orain, ordea, aukera izan dut kontsultatzeko; hona Onaindiak *Faustoren* pasarte horretarako egindako itzulpena (Goethe, 1986):

| DE | EU (<i>Fausto</i> , Onaindiak itzulia) |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ihr glücklichen Augen, Was je ihr gesehn, Es sei wie es wolle, Es war doch so schön | Oi begi-nini zoriontsuak! Ezpeizue axolarik izan gauza batzuk, dirala diralakoak, zuok egundo ikusi ez arren: eder da guztia beti. |

Izenburua itzultzeko euskarazko ordain bila nembilela, bi aukera ibili nituen buruan hasieran: «Begi zoriontsuak» (alemanekoaren itzulpen literala) eta «Zorioneko begiak». Bigarren horrek hitz-jokorako aukera ematen zuen euskaraz, «zoriontsu» adieraz gainera «dontsu» ere hartzen baitzuen. Iruditu zitzaidan egokia zela anbiguotasun hori baliatzea ipuin horretan, bietara ulertzeko modua baitago; hori aukeratu nuen, beraz, ordena aldatuta. Hona, euskarazkoak gainera, inguruko beste erdarek emandako izenburuak:

| DE | EN | FR | ES | EU |
|-----------------------|----------------|---------------------|-------------------|------------------|
| Ihr glücklichen Augen | Eyes to wonder | Les yeux du bonheur | Esos ojos felices | Begi zorionekook |

Bestalde, ipuina Georg Groddecki eskainia dago (*Georg Groddeck in memoriam*). Medikuntza psikosomatikoaren sortzaile izan zen Groddeck, eta, haren teorien arabera, ikusmena

ez legoke begiekin lotuta soilik. Begirik gabeko ikusmenik ere badela zioen, eta badirela orobat begiak edukiagatik ikusten ez dutenak ere. Bachmannek, beraz, Groddecken teoria hartu, eta eremu literariora eraman zuen, Miranda pertsonaia ardatz hartuta.

Itzulpenari dagokionez, aditzaren aspektuak eragin zidan zalantzarik handiena ipuin honean, kontakizunean etengabe nahasten baititu Bachmannek lehenaldia eta orainaldi epikoa, eta ikuspegi-aldaketa azkarra eragiten du horrek. Lehenaldi burutua baliatzea pentsatu nuen aurrena, euskaraz zerbait kontatzen ari garenean maiz erabiltzen dugun moldeari jarraituz (*Eta joan da, eta ikusi du han zegoela eta galdetu dio ea zertan dabilen, eta besteak gogo txarrez erantzun orduan...*). Baina jatorrizkoak egiten zuen bi denboren arteko jokoak galtzea zekarren horrek, eta, beraz, ahal zen neurrian jokoari eustea erabaki nuen, horrek kontakizunaren erritmoari mesede egiten ziolakoan. Istorioan, gainera, erritmoa azkartu egiten da bat-batean, bi pertsonaiaren arteko telefono-elkarrizketa baten ondoren, eta komeni zen aldaketa hori aditzaren aspektuaren bidez ere markatzea (*Aldibereko*, 2019: 130, 135):

| EU |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Josefen Miranda santua, muga-mugako ilunpean bizi diren guztien zaindari donea: Stasik erre, zati-katu, zutoin batera lotu eta kiskali egiten du, eta Mirandak den-dena sumatzen du, fisikoki, nahiz eta ez duen Stasiren hitz bakar bat ere entzungo sekula. Ez da ausartzen etxetik ateratzera; hantxe dago bere bigarren betaurreko pare berriarekin, ez du kalera atera nahi. Ernst etorri zaio tea hartzera, eta Salzkammergutera joateko planak egin dituzte; Berti ere azaldu da ea zer moduz dagoen galdetzera, eta abitaminosia duela esan dio. Miranda begira gelditu zaio, ados dago erabat Bertiren iritziarekin, eta agindu dio baietz, azenario gordin asko jango dituela.</p> |
| <p>Presaka dabil Miranda; ikusi du, hala ere, Anastasiak baietz egin diola buruarekin, «atsegin» dirudi ia, baina bat-batean ohartu da hark ere masailak gorrituak dituela. Edo apika bera bakarrik egongo da hain sukartsu gaur, eta gainezka egiten ariko da mundu zikin batean bizi deneko sentipen jasanekin honengatik. Hotelera iristean, nabarmena da oraindik masailetakoa orban gorrixka, lotsa epel antzeko bat aurpegi guztira eta gorputzera ere zabaldua; orri biko ate bat du aurrean, ikusi du, baina ez du ikusi orriak ez direla berarekin batera biratu, eta orrietako bat oldartu egin zaio, eta orduan pentsatzen du azkenekoz —kristal-zaparrada baten erdian irristatu eta lurrera erortzen denean, gorputza lehen baino are beroago nabaritzen du elarik kolpearen eta aho-sudurretatik darion odolaren ondorioz—: ez galdu begien bistatik bizitzako gauzarik onenak.</p> |

Bestalde, Mirandaren eta Josef haren senargaiaren arteko tratamenduak ere eragin zidan zalantzarik. Hika, lehenengo ipuineko Nadjaren eta Frankelen eta bigarren ipuineko Beatrixen eta Erichen artean bezala? Ala zuka, kontuan izanik formalki ezkondata ez egon arren bikote ezkondu baten antzeko harremana dutela? Xabier Olarrarekin eta Juan Garziarekin kontsultatu nuen hori ere, eta zuka ematea erabaki nuen azkenean, ezkonduen arteko jarduna euskarazko tradizioan zuka egiten dela aintzat hartuta. Kasu honetan, ez datoz bat alemaneko eta euskaraz-

ko tratamendua, alemanak lagunarteko *Du* aukeratu baitu. Hona bi adibide, horren erakusgarri (*Aldibereko*, 2019: 122, 126):

| DE | EU |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Josef fragt: Hast du deine Brille? Aber natürlich, sagt Miranda und gräbt in ihrer Handtasche. Ihr ist, als hätte sie außerdem Handschuhe mitgebracht, aber das sagt sie Josef besser nicht, nein, ihre Brille, das ist eigentümlich, sie muß also doch im Bad oder direkt neben dem Eingang oder im anderen Mantel oder, Miranda versteht es nicht, aber sie sagt geschwind: Nein, du, hab ich nicht. Aber ich brauche doch nichts zu sehen in einem Konzert. Josef schweigt, bewegt von seinem Leitmotiv in bezug auf Miranda: Mein argloser Engel.</p> | <p>Josef galdezka: Ekarri dituzu betaurrekoak? Jakina, diotso Mirandak, poltsa miatzen duelarrik. Esango luke eskularruak ere ekarri dituela, baina badaezpada hobe hori Josefi ez aipatzea, ez, eta betaurrekoak, bitxia, bainugelan utziko zituen, edo sarreran bestela, edo beste berokian apika, auskalo, Mirandak ez du ulertzen, baina arin-arin erantzuten dio: Bada, ez, ez ditut ekarri. Dena dela, kontzertu batean ez dut ezer ikusi beharrik. Josefek ez du ezer esaten, Miranda definitzeko duen esapidea gogoan: Nire aingeru lañoa.</p> |
| <p>Josef sagt aus dem IV. Bezirk herüber: Eine schöne Bescherung. Aber du bist doch schon oft ohne Brille ausgegangen. Ja aber. Miranda weiß nichts Überzeugendes vorzubringen. Ja aber, jetzt ist das anders, denn sonst hab ich sie wenigstens in der Tasche. Nein, das hast du nicht. Ich bitte schon sehr! Wir wollen doch nicht deswegen, flüstert Miranda, bitte, wie klingst du denn?</p> | <p>Josefen ahotsa, hiriko IV. barrutitik: Ederra egin duzu orain ere. Dena dela, askotan irten zara kalera betaurrekorik gabe. Bai, baina... Mirandari ez zaio ezer ganorazkorik bururatzen Josef gogatzeko. Bai, baina oraingoan ez da berdin. Besteetan, poltsan izaten ditut behintzat. Ez, hori ez da egia. Ondotxo dakizu hori! Aizu, baina horregatik ez dugu ba... —xuxurlaka Mirandak—. Ez hola hitz egin.</p> |

Istorio honetan ere, gainerakoetan bezala, bada kontu tipografiko aipagarri bat. Lehenengo ipuinaz ari ginelarik, esan dugu elkarrizketak narrazioan bertan txertatuta daudela, paragrafo berean, batere marka bereizgarririk gabe. Hemen, berriz, elkarrizketa gehienak narraziozatietatik aparte emanda daude, baina elkarrizketak markatzeko ohiko markarik gabe; alegia, ez marrarik (—), ez komatxorik (“” edo «»), gure inguruko hizkuntzen tradizioak agintzen duen moduan. Zalantza izan nuen zer egin, jatorrizkoari jarraitu ala ohiko erabilerari eutsi. Erabakia hartzen laguntzeko, inguruko hizkuntzen itzulpenetara jo nuen, eta ikusi nuen ingelesak eta frantsesak jatorrizkoari jarraitzen diotela; gaztelaniakoak, berriz, marratxoak markatzen ditu

elkarrizketak. Zuzentzaileekin hitz egin ondoren, jatorrizkoari eustea erabaki nuen. Hona adibide bat (*Aldibereko*, 2019: 126):

| DE | EU |
|-----------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|
| Wie klingst du denn? | Ez hola hitz egin. |
| Wie soll ich denn klingen? | Nola nahi duzu ba hitz egitea? |
| Anders. Eben anders. | Bestela. Hola ez. |
| Und da keine Antwort kommt, sagt sie schnell: | Eta, erantzunik ez datorrenez beste aldetik, Mirandak azkar-azkar: |
| ... | ... |

| EN | FR | ES |
|---------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|--------------------------------------------------|
| Why do you sound like that? | S'il te plaît, dis-moi, tu as une drôle de voix. | —Oye, ¿qué tonos son esos? |
| What do you mean, how do I sound? | Mais quelle voix devrais-je donc avoir? | —¿Y en qué tono quieres que te hable? |
| Different, just different. | Une voix différente. Justement, différente. | —En otro. Sí, en otro. |
| And because he doesn't answer, she rushes to say: | Et comme aucune réponse ne vient, elle dit rapidement: | Y al no obtener respuesta, añade inmediatamente: |
| ... | ... | ... |

4. ipuina: «Zaunka»

Ipuin honetan, aurrekoetan ez bezala, bi dira emakume protagonistak, ez bakarra: Jordan andre zaharra eta Jordan andre gaztea (Franziska). Jordan andre gaztea bigarren ipuinean ere ageri da, zeharka, zeren Beatrixek ile-apaindegian ikusten dituen emakume eder ustez aberatsetako bat baita. Istorio aztoragarria da «Zaunka», bi emakumeon arteko harremanaren berri ematen baitu, biek Leo Jordani —Jordan andre zaharraren semea eta Jordan andre gaztearen senarra— dioten beldurra eta miresmena ardatz harturik. Beldur hori ez da agerikoa ipuinaren hasieran, baina azaleratuz eta gorpuztuz doa pixkanaka, bi emakumeen arteko harremana estutu ahala, azkenean ipuina guztiz kutsatzeraino. Nazismoaren aipamen zeharkako baina esplizitu bat ere bada ipuinean: Leo Jordan psikiatra da; kontzentrazio-esparruek eragindako arazo psikiatrikoei buruzko ikerketa-lan bat egin du, eta jakingo dugu Jordan familiako kide bat kontzentrazio-esparru batean egon zela homosexualitatez.

Bachmannek bi Jordan emakumeen arteko kontrastea baliatzen du istorioaren ertz ezku-
tuak pixkanaka azaleratzeko: batetik, ama-semeen arteko harreman hasieran misterioitsu samar
eta, istorioak aurrera egin ahala, gero eta argiagoa; eta, bestetik, Franziskaren eta senarraren
arteko ezkon-harreman gero eta hauskorragoa.

Itzultzean, lanak eman zizkidan lehenengo paragrafoko deskribapenak; jirabira ugari eman
nituen, eta bertsio bat baino gehiago paratu, behin betikoa aukeratu arte. Itzultzeko bereziki zai-
lak iruditzen zaizkit askotan deskribapenak. *Aldiberekoren* aurretik itzuli nuen Dürrenmatt-en
Epailea eta haren borroa nobelan, ederki asko sufriarazi zidaten leku, eguraldi eta egoeren des-
kribapen xehe ugariak. Zaila da deskribapen sinesgarri bat egitea, izen eta, batez ere, adjektibo
zuzen egokiak topatzea eta istorioan behar bezala txertatzea, integratzea, kirrinkarik egin gabe
(adjektiboak baino gauza bihurri gaiztoagorik!). Nik baino askoz hobeto adierazten du hori
Anjel Lertxundik, *Itzuliz usu begiak* saiakera gogoangarrian: «Adjektiboa ondo kontrolatzea da
estiloaren oina» (Lertxundi, 2019: 198).

Hona «Zaunka»ren lehenengo paragrafoa (*Aldibereko*, 2019: 136):

| DE | EU |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Die alte Frau Jordan, die schon drei Jahr- zehnte »die alte Frau Jordan« genannt wurde, weil es danach eine junge Frau Jordan gab und jetzt wieder eine junge Frau Jordan, wohnte zwar in Hietzing, aber in einer ver- lotterten Villa, in einer Einzimmerwohnung mit einer winzigen Küche und einem Bad, in dem es nur eine Sitzbadewanne gab. | Baziren hogeita hamar urte Jordan andre zaharra, zei- nari hola deitzen baitzioten, «Jordan andre zaharra» —gero Jordan andre gazte bat ere egon zelako eta orain berriz beste bat zegoelako—, Hietzingen bizi zela, gain behera etorritako etxetzar bateko etxebizitza gelabakar batean; sukalde txiki-txiki bat eta, bainuge- lan, bainu-ontzi erdi bat baino ez zeukan, eserita ego- teko aukera bakarrik ematen duten horietako bat. |

| EN | FR | ES |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Old Frau Jordan had been called “old Frau Jordan” for the past three decades be- cause there had been first one and now another young Frau Jordan, and although she did live in Hietzing, she had only one-room apart- ment in a dilapidated villa, with a tiny kitchen and no more than half a tub in the bathroom. | La vieille Mme Jordan, qu’on appelait déjà depuis trois dé- cennies « la vieille Mme Jor- dan » parce qu’il y avait après elle une jeune Mme Jordan et maintenant encore une autre jeune Mme Jordan, habitait Hietzing, c’est vrai, mais dans una villa délabrée, un appar- tement d’une pièce avec une cuisine minuscule et une salle de bains où il n’y avait qu’un baignoire sabot. | La anciana señora Jordan, a quien hacía ya treinta años que llama- ban «la anciana señora Jordan» —porque después de ella había habido una joven señora Jordan y ahora había otra, también jo- ven—, vivía en Hietzing, pero en una casona ruinoso donde ocupaba un apartamento de una sola habitación, con una cocina minúscula y una salita de baño en la que sólo había una media bañera. |

Deskribapen berez bihurria are gehiago korapilatzen du euskaraz (eta gaztelaniaz) marratxo artean dagoen aposizioak, eta makina bat buelta eman nituen esaldian txertatzeko, ez bainion leku egokirik aurkitzen. Koadroan jasotakoa aukeratu nuen azkenean, baina zalantzaz, hala ere. Orain, gainera, paragrafo hori berriz irakurri dudalarik artikulu hau idazteko, konturatu naiz ñabardura bat galdu duela euskarazko itzulpenak. Izan ere, beste hizkuntzetako itzulpen guztiek diote Jordan andre zaharra Hietzingen bizi zela BAINA gainbehera etorritako etxe zahar batean. Euskarazkoan ez dago *bainarik*, ezta kontrastea markatzeko beste juntagailu edo lokailurik ere, eta egon beharko zuen. Izan ere, Hietzing Vienako auzo dotore aberatsetako bat da, eta, beraz, horregatik dago markatua kontrastea jatorrizkoan eta gainerako hizkuntzetan. Hietzingen bizi zen Jordan andrea, bai, baina etxe zahar bateko apartamentu txiki batean. *Mea culpa*. Ez nintzen konturatu horretaz itzulpena egin nuenean, ezta bukatu osteko orrazketan ere. Horra, nahi gabe aurkitua, itzultzaile orok duen arriskua eta behar duen umiltasuna erakusteko adibide bat.

Tipografiari dagokionez, hemen ere, «Begi zorionekook» ipuinean bezala, inolako marka tipografikorik gabe daude emanda elkarrizketa-zatiak jatorrizkoan: ez marratxorik, ez komatxorik. Aurreko ipuineko adibidean bezala, inguruko hizkuntzek, gaztelaniaz ez beste guztiek, jatorrizkoari jarraitu diote, eta hala egin dut euskarazko bertsioan ere (*Aldibereko*, 2019: 151):

| DE | EU |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Hören Sie das auch? Was? Die Hunde, sagte die alte Frau. Früher hat es nie so viele Hunde gegeben in Hietzing, ich habe wieder welche bellen gehört, und nachts bellen sie auch. | Zuk ere entzun dituzu? Entzun, zer? Txakurrak, esan zuen Jordan andreak. Lehen ez zegoen hainbeste txakur Hietzingen, baina berriz entzun ditut zaunkaka, eta gauetz ere aditzen ditut. |

| EN | FR | ES |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Do you hear it, too? What? The dogs, the old woman said. There were never so many dogs in Hietzing, I've heard them barking again, and they bark at night, too. | Et ça, vous l'entendez aussi? Quoi? Les chiens, dit la vieille femme. Avant, il n'y avait pas tant de chiens à Hietzing, j'en ai encore entendu aboyer quelques-uns, et la nuit ils aboient aussi. | —¿Y usted también los oye? —¿Qué cosa? —Los perros—dijo Frau Jordan—. Antes no había tantos perros en Hietzing, he oído ladrar de nuevo unos cuantos, que también ladran de noche. |

5. ipuina: «Aintzirarako hiru bide»

Hasieran esan dugunez, bildumako istorio luzeena da hau; liburu-erdia ia. Luzeena izateaz gainera, liburuaren bizkarrezurra da, lehenengo ipuinarekin batera. Ez dut uste kasualitatea denik jatorrizko liburuaren ipuin-ordena. Bildumaren egitura ziklikoa ixten laguntzen du ordena horrek, ipuin batzuetako pertsonaiak zeharka ere agertzen baitira gero beste batzuetan (esate baterako, lehenengo ipuineko Jean Pierre bosgarrenean ere aipatzen da; bigarren ipuineko Elisabeth Mihailovics bosgarrenean ere ageri da; bigarren ipuinean zeharka aipatzen den Jordan andrea da laugarren ipuineko protagonistetako bat; eta laugarren ipuineko Leo Jordan psikiatra bosgarrenean ere azaltzen da istant batez).

Hasieran aipatu dugu lehenengo eta bosgarren ipuineko emakume protagonistak profesional arrakastatsuak direla; bigarren, hirugarren eta laugarren ipuinetakoek, berriz, ez dute lekurik plaza publikoan, eta beste estrategia batzuk garatu dituzte aurrera egiteko. Nekez egiten dute denek aurrera, hala ere, eta zailtasun handiak dituzte guztiek egokitu zaien munduan —gizonezkoek taxututako mundu horretan— beren ahotsa bilatzeko, hizkuntza bera baliatzeko.

Ipuinak oso gertutik jarraitzen dio Bachmannen biografiari. Klagenfurt kokatua dago, Karintia eskualdeko hiriburuan, hots, Bachmannen jaioterrian; Elisabeth Matrei ipuineko protagonistak badu anaia bat, Robert, bera baino hamabost urte gazteagoa, Bachmannek bezalaxe; bestalde, protagonistak jaioterriarekin duen erlazio anibalentean ere erraz hautematen da Bachmannek berak Austriarekin eta Klagenfurt jaioterriarekin izan zuena: gertutasun-urruntasun tentsio etengabe bat.

Kontakizuna laburbilduz: Elisabeth Matrei, 1960ko hamarkadan Parisen bizi den kazetari eta argazkilari bat, Klagenfurt jaioterrira itzuli da aita (adinekoa eta alarguna) bisitatzerako. Elisabethek ibilaldi luzeak egiten ditu lakurantz daramaten etxe-inguruko landa-bideetan barrena, bakarrik gehienetan. Umetatik ezagutzen duen paisaia ezagun hori, ordea, bere oroimen eta bi-zipenen topografia bihurtuko da pixkanaka, eta bideek, lakurantz eramanez, gizonezkoekin izan dituen harremanetara eramango dute Elisabeth. Gizonezko horien artean, Franz Joseph Trottak du protagonismorik handiena ipuinean. Joseph Roth austro-hungariar idazlearen *Die Kapuzinergruft* [Kaputxinoen kripta] eleberritik hartu zuen Bachmannek Trottaren erreferentzia. Rothen nobelako Trotta, 1938an Alemania naziak Austria mendean hartzen duela, jabetzen da amaitua dela ordura arteko bere mundua, eta erbestera bidaltzen du semea, Parisera. Bachmannek, Trotta mutiko hori hartu, eta Parisen kokatzen du xx. mendeko 1950eko eta 1960ko hamarkadetan.

Gure gaurko ikuspegitik begiratuta, harrigarria da ikustea nola ez duten gaurkotasun-izpirik galdu Trotta pertsonaiak hizkuntzari, identitateari, aberriari, erbesteari edo kazetaritza sentsazionalistari buruz esaten dituenek (1972an!). Hotzikara ematen dute Trottaren eta Elisabeth Matrei protagonistaren arteko hizketaldi askok.

Bachmannen biografian funtsezkoak diren bi erreferentzia historiko nagusik zedarritzen dute ipuin honen testuingurua: batetik, Austria-Hungariako inperioa eta hura desagiteak izan

zituen ondorioak, eta, bestetik, nazismoa. Eta, biak azaltzeko, funtsezkoak dira istorioan bai Trotteren bai Elisabethen aitaren (Matrei jauna) nondik norakoak. Nazismoari dagokionez, bada beste aipamen labur baina garrantzitsu bat istorioan: Jean Améry⁷ idazlea eta hark torturari buruz idatzitako saiakera. Erreferentzia historiko gehiago ere badira istorioan, hala nola Bigarren Mundu Gerra, Pariseko 1968ko iraultza (desilusioak zeharkatua dagoeneko, 1972an!), Aljeriako independentzia-gerra eta Vietnamgo gerra.

Elisabethek, lehenengo ipuineko Nadjak bezala, erbestera baten sintomak ditu, nolabait esatearren, ez baita inon —ez eta ezein hikuntzatan ere— etxean sentitzen: ez jaioterrira itzulzen denean aita bisitatzea, ez Parisen edo New Yorken bizi denean.

Itzulpenari dagokionez, ipuineko pertsonaien arteko tratamendu-mota erabakitzea izan zen lehenengo lana; kasu honetan, aurreko ipuinetan baino pertsonaia gehiago ageri dira, eta koadro bat osatu nuen, ez nahasteko eta koherentziari eusteko. Oro har, hitanoa baliatzea erabaki nuen Elisabethen eta haren maitaleen arteko harremanerako, bi salbuespen eginda, Manes eta Branco, Elisabethek haiekin duen harremana une batekoa besterik ez delako eta ez dutelako elkar ezagutzen. Anai-arreben arteko jardunerako ere hitanoa aukeratu nuen, bai eta Elisabethek lankide kazetariekin duenerako ere. Azkenik, aitak seme-alabekin eta Elisabethek Liz koinatarekin duenerako, zuka.

| Pertsonaiak | Tratamendua |
|----------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|
| Elisabeth - Robert (anai-arrebak) | hika |
| Elisabeth - Trotta (maitaleak) | hika |
| Elisabeth - Philippe (maitaleak) | hika |
| Elisabeth - Hugh (maitaleak) | hika |
| Elisabeth - Manes (maitaleak) | zuka (ez dute elkar ezagutzen ia) |
| Elisabeth - Branco | zuka (istorioko azken eszenan ezagutzen dute elkar) |
| Elisabeth - Matrei jauna (aita-alabak) | zuka |
| Matrei jauna - Elisabeth / Robert (aita eta seme-alabak) | zuka, bi noranzkoetan |
| Elisabeth - Liz (Robert anaiaren emaztea) | zuka |
| Elisabeth - lankide kazetariak, André nagusia barne | hika |

7. Jean Améry —Hans Mayer izenez jaioa 1912an, Vienan— austriar idazle bat da, nazismoaren aurka egin zuena eta Auschwitzeko kontzentrazio-esparruan egon zena. Torturari buruzko saiakera ezagun bat idatzi zuen: *Jenseits von Schuld und Sühne. Bewältigungsversuche eines Überwältigten* [Errutik eta pekamenetik harago: biolentziaren biktima baten saioak gertatutakoa gainditzeko], Szczesny, 1966, Munich. (Gaztelaniazko edizioa: *Más allá de la culpa y la expiación. Tentativas de superación de una víctima de la violencia*, Pretextos, 2001.)

Itzulpenean hartu beharreko beste erabakietako batek oin-oharrekin zuen zerikusia; alegia, ea zer erreferentzia historikok behar zuten oin-oharra. Azkenean, halako oin-ohar bat besterik ez nuen sartu, Austria-Hungariako inperioarekin lotua dagoen aipamen guretzat oso urrutiko bati buruzkoa, iruditu baitzitzaidan oso arrotz egingo zitzaiola bestela euskal irakurleari (jatorrizkoan ez dago oin-ohar bakar bat ere liburu osoan). Hona, euskarazkoaz gainera, gure inguruko erdarek aukeratutako bidea (*Aldibereko*, 2019: 192):

| EU |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Trotta zaharrak, beste askok bezala, ez zuen ulertu bitiztea egokitu zitaion garaiaren bilakaera, eta, azkenean, 1938an, mundua hondoratu zenean, galdera hau egin zion bere buruari: Nora jo behar dut nik orain, nora joan behar du Trotta batek? Berriro Kaputxinoen Kriptara joan behar izan zuten haietako bat zen, ereserkiko «Jainkoak gorde dezala» esakunea estimu handitan zuten haietako bat, nahiz eta aurretik ahalegin guzti-guztiak egina zen Habsburgoko dinastia suntsitzeko.¹</p> |
| <p>Oin oharra: Trotta familia Joseph Roth idazlearen <i>Radetzky martxa</i> eleberraren protagonista da, eta Austria-Hungariako inperioaren gainbehera erretratatzeko du nobelak. Bestalde, <i>Kaputxinoen kriptara</i> Rothen beste eleberririk baten izenburua da, eta Trotta familiako beste kide bat da han ere protagonista. Vienako Kaputxinoen elizako Kriptara inperialean daude lurperatuta Austria-Hungariako kaiser izandakoak. I. Bachmannek, Rothen <i>Kaputxinoen kriptara</i> eleberriko azken Trotta semea erreferentzia gisa harturik, berrogeita hamarrekota hamarkadako Parisen kokatzen du. «Jainkoak gorde dezala» esakuneak Austria-Hungariako ereserkiaren 1. esaldiari egiten dio erreferentzia: «Jainkoak gorde dezala Frantzisko kaiserra».</p> |

Ipuin honen gaztelaniazko bi itzulpen daude: bata 1987koa, Juan J. del Solarrek egina eta Alfagurak argitaratua (ES1 deitu diot adibideetan), eta 2011koa bestea, Isabel García Adánezek Siruela argitaletxerako egina (ES2). 1987ko edizioak ez du ez oin-oharrik, ez bestelako azalpenik eransten pasarte horretan; 2011ko edizioak, berriz, bi oin-ohar dakartza, bata bestearen segidan:

| ES2 (2011) |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1. oin-oharra: La familia Trotta protagoniza la novela <i>La marcha Radetzky</i>, de Joseph Roth (1932), uno de los más profundos retratos de la decadencia, el hastío y la progresiva pérdida de energía vital y capacidad de integrarse en el mundo que caracterizan el espíritu centroeuropeo de comienzos del siglo xx. Otro Trotta, pariente lejano de los anteriores, es después el personaje principal de <i>La cripta de los capuchinos</i>, de Roth (1938). El propio apellido se convierte de este modo en símbolo de toda una actitud vital, en un tipo más que en un individuo. [...] el personaje de Bachmann constituye una ficción alternativa de lo que hubiera podido ser de ese tipo de hombre hastiado si hubiera vivido después la Anexión de Austria en 1938, la Segunda Guerra Mundial y la posguerra. (<i>N. de la T.</i>)</p> |

2. oin-oharra:

En la Cripta de los Capuchinos de Viena están enterrados los emperadores austriacos y, de nuevo, el lugar se convierte en símbolo de la grandeza perdida y de una época en que el hombre estaba en armonía con la historia y con su entorno.

Frantsesezko itzulpenak alemanezko jatorrizkoari jarraitu dio, eta ez du oin-oharririk erantsi. Ingelesak, oster, bai:

EN

... and told her about his father who had also failed to comprehend the time she lived in and had asked in the end: Where am I to go now, a Trotta, as the world ended once more for Trotta in 1938: he had been among those who had to visit Capuchin vault again and knew what “God protect us” meant but had done everything to topple the Hapsburg dynasty.*

Trans. Note:

Reference here is to the old Austrian national anthem, rendered obsolete by the collapse of the Hapsburg Monarchy in 1918.

Azkenik, bada hizkuntza-kontu bitxi bat ipuin honetan, Bachmannek abilezia handiz baliatzen duena ondo azaleratzen baitu, Alemaniako alemana eta Austriakoa kontrajarriz, bi herrialde horien arteko harreman ez beti baketsua: gazta-tarta izendatzeko alemanek erabiltzen duten hitz bat aipatzen du Matrei jaunak, berari gorrotagarri zaiona; hitzaren aipamen bitxiak aitzakia ematen dio Matrei jaunari Austriako Karintia pobrera etortzen diren turista alemanen kontra egiteko; hala, agerian gelditzen dira bi herrialdeen arteko herra eta hika-mika zaharrak (*Aldibereko*, 2019: 260).

DE

Und nun mußte er noch auf seine alten Tage erleben, daß Kärnten den Deutschen gehörte. Die Bauern hätten praktisch fast alle Grundstücke an sie verkauft, die neuen Besitzer spielten sich schon auf wie die Herren, nicht wie Gäste. Einen Österreicher schaute man während der Saison gar nicht an, und die Speisekarten waren voll von irrsinnigen Ausdrücken, die kein Österreicher verstand, für **Topfenkuchen** habe er »**Käsesahnetorte**« gelesen, und danach sei er aufgestanden beim RONACHER und habe das Lokal nie mehr betreten.

EU

Eta orain, zahartzaroan, Karintia alemanen esku ikusi beharra, gainera. Nekazariak lur ia guztiak saldu zizkieten, eta jabe berriok jauntxo-jarreran zebiltzan dagoeneko gonbidatu gisa jokatu ordez, hori besterik ez baitziren, gonbidatuak. Goi-denboraldian, alemanek begiratu ere ez zieten egiten austriarrei, eta jatetxeetako menuak beteta zeuden austriarrek nekez ulertzen zituzten hitz zentzugabez: betiko *Topfenkuchen* ordez *Käsesahnetorte* irakurri zuen behin karta batean, **gazta-tarta izendatzeko**; hura ikustean, altxatu, eta alde egin zuen Ronacher jatetxetik, eta ez zen sekula itzuli berriz.

Jatorrizkoan, *Topfenkuchen* eta *Käsesahnetorte* aipatzen dira, baina, jakina, ez dago esanahia azaldu beharrik, aleman-hiztun guztiak ulertzen baitituzte biak, nahiz horietako bakarra erabili beren hizkeran (*Topfenkuchen* austriarrek eta *Käsesahnetorte* alemanek). Euskarazko itzulpenean, baina, «gazta-tarta izendatzeko» erantsi nuen, bi hitzen arteko joko argitzeko.

Inguruko beste hizkuntzetan ere, frantsesez izan ezik, argibideren bat erantsi dute. Gaztelaniazko itzulpen zaharrenak (1987koak), «para designar la tarta de queso con nata» dio, eta berrienak (2011koak) «había visto la denominación ‘tarta de queso con crema’», baina alemaneko bigarren hitza kenduta; ingelesak, berriz, «for a simple ‘cheesecake’» azalpena erantsi du, eta, gaztelaniazko itzulpen berrienak bezala, alemaneko bi hitzetako bat kendu du; azkenik, frantsesak, esan bezala, jatorrizkoari eutsi dio, eta ez du ezer erantsi:

| EN | FR | ES1 (1987) | ES2 (2011) |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>And now, in his old age, he was forced to look on while the Germans took over Carinthia. The farmers had sold almost all their land to them, the new owners acted like lords and masters, not like guests. There wasn't an Austrian to be seen during the tourist season and the menus abounded with idiotic names no Austrian understood, once he'd read something like Käsesahnetorte for a simple “cheesecake” and promptly stood up and left and would never set foot in the Ronacher again.</p> | <p>Et voilà que sur ses vieux jours il fallait voir la Carinthie aux mains des Allemands. Les paysans leur avaient pratiquement vendu tous les terrains, les nouveaux propriétaires se pavanaient déjà en seigneurs au lieu de se conduire en visiteurs. Pendant la saison on ne regardait même plus les Autrichiens, et dans les restaurants les cartes étaient pleines d'expressions que pas un Autrichien ne comprenait, pour Topfenkuchen il avait lu Käsesahnetorte, et voyant cela, il avait quitté le restaurant <i>Ronacher</i> et n'y avait jamais remis les pieds.</p> | <p>Y ahora, a su edad, le tocaba ver cómo Carintia pasaba a manos de los alemanes. Los campesinos les habían vendido prácticamente todos sus terrenos, y los nuevos propietarios ya empezaban a dárseles de patronos, en vez de portarse como huéspedes. A los austriacos ni los miraban durante la temporada de verano, y las cartas de los restaurantes estaban llenas de expresiones absurdas que ningún austriaco entendía; una vez leyó <i>Käsesahnetorte</i> en lugar de Topfenkuchen para designar la tarta de queso con nata, y se levantó y abandonó el Ronacher, donde no volvió a poner los pies.</p> | <p>Ahora, a su edad, aún le tocaba ver Carintia en manos de los alemanes. Los campesinos les habían vendido prácticamente todas sus tierras, y los nuevos propietarios ya se las daban de señores en lugar de comportarse como los invitados que eran. Durante la temporada alta, a los austriacos no se dignaban ni a mirarlos, y luego las cartas de los restaurantes estaban llenas de términos disparatados que ningún austriaco entendía, para el <i>Topfkuchen</i> de toda la vida había visto la denominación «tarta de queso de crema», tras lo cual se había levantado de la mesa y no había vuelto a poner un pie en el hotel Ronacher.</p> |

Ondorio batzuk

Gizabanakoak gizarte modernoan bizi dituen noraeza, beldurra eta ezinegona erakusten du Bachmannek *Aldiberekon*, errealitatearen korapiloak bost emakumeren galbahetik pasatuz. Nadja, itsumustuka Bibliaren itzulpen egokiaren bila; Beatrix eta Miranda, beren ihesean umiliaturik; Franziska eta Frau Jordan senar eta seme gupidagabearen beldur; eta Elisabeth, antsietatez gaixorik telefonoak noiz joko zain... Bost emakumeren isolamendua eta ahots galdua dakarzkigu Bachmannek. Onenean, gizonak taxututako mundu baten hizkuntza eta irudiak baliatzeko gai dira, Nadja eta Elisabeth bezala; okerreanean, horma bat altxatzen dute mundu etsaitu horren aurrean, kosmetikari, itsutasunari edo haluzinazioei helduta. Bachmannek emakume horien guztien gogoia estaltzen duen errezela altxatzen du une batez, eta errezelaren atzeko izu-ikara eta egonezina erakusten ditu. Izu horrek eragiten duen garrasia, baina, eztarrian gelditzen da korapilatuta; ez da entzuten, eta hizkuntzarik gabeko emakume horien isolamendua da irakurleak istorio hauetan sumatzen, entzuten, duena.

Esan bezala, unean uneko sintaxi-, hiztegi- eta puntuazio-arazoez harago, liburuarentzako tonu egokia bilatzea izan nuen obsesio itzulpena egitean. Oso gertukoak zaizkit istorio guztiak; liburuko emakume horietan guztietan nago ni ere. Arras ezagunak ditut beldur, antsietate, egonezin horiek guztiak, baita hutsalenak ere, eta, beraz, beste edozein itzulpenetan baino are premiazoagoa zitzaidan hain gertukoa nuen horretarako tonu egokia bilatzea. Anjel Lertxundik *Eskarmentuaren paperak* lanean dioena izan dut gogoan iltzatuta: «Emadazue tonua, eta mundua kontatuko dut» (Lertxundi, 2009: 133). Baita *Itzuliz usu begiak* lan berriagoan dioena ere: «[Itzultzaileak] badaki tonuaren baitan dagoela, neurri handi batean, itzulpen ondo egina- ren ditxa» (Lertxundi, 2019: 352).

Bachmannek darabilen hizkuntza hertsiki loturik dago, ezinbestean, istorioetako emakume bakoitzaz egiten duen erretratuarekin, eta erretratu hori ez du narratzaile «objektibo» batek egiten; aitzitik, emakume horien ikuspegitik eginga dago, haien barruan sartuta idazten du Bachmannek, eta horrek sinesgarri(ago) eta aztoragarri(ago) egiten ditu istorioak.

Beharbada, ez dira erraz-erraz irakurtzekoak istorio hauek. Bachmannen hizkuntza ez dago edukiz eta formaz xehe-xehe mamurtua; ez dio lana errazten irakurleari, pertsona heldu gisa tratatzen du. Hizkuntzak Bachmannentzat duen garrantziari buruzko bi aipu labur bezain argi ekarri nahi nituzke hona: lehenengoan, garbi uzten du zer den liburu baten hizkuntzatik axola zaiona; bigarreanean, hiri batekin konparatzen du hizkuntza, metafora eder baten bidez (Koschel eta Von Widenbaum, 1983: 11, 140):

Ez zait interesatzen literatura puruaren eta konprometituen arteko eztabaida. Kontu zaharkitua iruditzen zait, gauza bakarra baita idazterakoan benetan zaindu beharrekoa: hizkuntza. [...] Idazle batek darabilen hizkuntzak eusten ez badio, edukiak ere ez dio eusten.

Hizkuntza hiri batekin alderatuko bagenu, hiriko alde zaharra dugu aurrena, sorburua, eta, gero, hari erantsitako auzo berriak, eta, ondoren, gasolindegia eta hiritik ateratzeko errepideak; hirietan

ko aldiriak erdigunea baino itsusiagoak dira batzuetan, baina denek osatzen dute hiria, denak dira funtsezko hiri bat osatzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet, lehenik eta behin, itzulpen-prozesuan zuzentzaile eta aupada-emaile izan ditudan maisu, maistra, lankide eta adiskide guztiei. Haien iradokizun, gomendio eta zuzenketarik gabe, beste bat litzateke emaitza. Baina, horiez gainera, ez ditut ahaztu nahi liburua itzuli bitartean mahai gainean izan ditudan euskarazko irakurgaiak —artikuluaren hasieran aipatuak—, haietan ikusitakoa azpimarratuz, markatuz eta, ahal nuen neurrian, kaskoan sartuz egin baitut aurrera, pixkanaka-pixkanaka. Ez bilatu koherentziarik ez ordenarik irakurketa horietan, esan bezala guztiz kaotikoa baita nire «dokumentazio-fasea». Bereziki aipatu nahi dut Lertxundiren *Otto Petteren* xxv. urteurrenaren edizioa (2018), Bachmannen *Aldiberekorekin* zerikusirik batere ez izan arren mahai gainean izan bainuen itzulpen-prozesu osoan, lapitzez egindako azpimarra, ohar, hitz-zerrenda eta harridura-markaz josia, itzulpenaren errebasoan aukera egokiagoak egiten lagunduko zidalakoan. Ni ere, Lertxundik *Eskarmentuaren paperak* saiakeran esan bezala, urduri jartzen naiz lapitzik ez badut irakurtzean (Lertxundi, 2009: 112-113):

Lapitza eskuan dudala irakurtzen dut beti, eta arkatzik gabe baldin banago, haren faltak urduri jartzen nau [...] Zerbait berria iradokitzen didaten hitz eta espresioak, paragrafoen hasiera bereziak, jauziak, hitzen arteko lotura bitxiak, pertsonaia baten keinuren bat, elkarrizketak akotatzeko modu desberdinak, beste nonbait irakurritakora naraman zerbait... Hori guztia izan daiteke nire azpimarren bazka.

Eskerrik asko, bihotzez, lapitza gastatzen laguntzen didazuen guzti-guztiori.

BIBLIOGRAFIA

- BACHMANN, Ingeborg (1953): *Die gestundete Zeit*, Frankfurter Verlagsanstalt.
- (1956): *Anrufung des Grossen Bären*, Piper Verlag, Munich.
- (1961): *Das dreissigste Jahr*, Piper Verlag, Munich.
- (1971): *Malina*, Suhrkamp, Frankfurt.
- (1972): *Simultan*, Piper Verlag, Munich.
- (1981): *Die Wahrheit ist dem Menschen zumutbar*, Piper Verlag, Munich.
- (1987): *Tres senderos hacia el lago*, Alfaguara (bost ipuinen bilduma, baina bosgarrenaren izenburua hartuta bildumaren izenburu orokor gisa); itzultzailea: Juan J. del Solar.
- (1989): *Three Paths to the Lake*, Holmes & Meier, AEB; hitzaurrea: Mark Anderson; itzultzailea: Mary Fran Gilbert.
- (1995): *Todesarten-Projekt*, Kritische Ausgabe, 4. lib. Piper, Munich/Zürich.
- (2000): *Ich weiss keine bessere Welt*, Piper Verlag, Munich.
- (2006): *Trois sentiers vers le lac*, Actes SUD; itzultzailea: Hélène Belleto.
- (2011): *Tres senderos hacia el lago*, Siruela (jatorrizko istorio-bildumako azken ipuina bakarrik); itzultzailea: Isabel García Adánez.
- (2019): *Aldibereko*, Igela-Erein; itzultzailea: Idoia Santamaría.
- eta CELAN, Paul (2015): *Herzzeit. Briefwechsel*, Suhrkamp, Frankfurt. Bildumaren egileak eta iruzkingileak: BADIOU, Bertrand; HÖLLER, Hans; STOLL, Andrea eta WIEDEMANN, Barbara.
- BÖTTIGER, Helmut (2017): *Wir sagen uns Dunkles*, Verlags-Anstalt, Munich.
- DÜRRENMATT, Friedrich (2018): *Epailea eta haren borreroa*, Igela-Erein; itzultzailea: Idoia Santamaría.
- GARZIA, Juan (2014): *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak*, Ikasmaterialetako hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko Aholku Batzordea, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- GIL BERA, Eduardo (2015): *Esta canalla de literatura. Quince ensayos biográficos sobre Joseph Roth*, Acantilado, Bartzelona.
- GLEICHAUF, Ingeborg (2013): *Ingeborg Bachmann und Max Frisch*, Piper Verlag, Munich.
- GOETHE, Johann W. (1986): *Fausto*, Igarri, Bilbo; itzultzailea: aita Onaindia.
- Joyce, James (2015): *Ulises*, Igela; itzultzailea: Xabier Olarra.

- KOSCHEL, Christine eta VON WIDENBAUM, Inge (zuz.) (1983): *Ingeborg Bachmann. Wir müssen wahre Sätze finden. Gespräche und Interviews*, Piper Verlag, Munich.
- LERTXUNDI, Anjel (2009): *Eskarmentuaren paperak*, Erein.
- (2018): *Otto Pette*, Alberdania (XXV. urteurrenaren edizioa).
- (2019): *Itzuliz usu begiak*, Erein.
- MELVILLE, Herman (2016): *Bartleby eskribatzailea*, Erein; itzultzailea: Juan Garzia.
- ROTH, Joseph (1981): *La marcha de Radetzky*, Bruguera, Bartzelona; itzultzailea: Griselda Vall-ribera Blanc.
- (2002): *La cripta de los capuchinos*, Acantilado, Bartzelona; itzultzailea: Jesús Pardo.
- SAIZARBITORIA, Ramon (1979): *Egunero hasten delako*, Hordago.
- SHIEH, Pi-Er (1999): *Ingeborg Bachmanns Erzählkunst. Eine Analyse des Spätwerkes «Simultan»*, Cuvillier Verlag Göttingen.
- STOLL, Andrea (2012): *Ingeborg Bachmann. Der dunkle Glanz der Freiheit*, Bertelsmann Verlag, Munich.
- URKIZU, Patri (1975): *Sekulorun Sekulotan*, Kriselu.

Resumen

Tras una introducción en la que se sitúa la colección de relatos *Simultan* (*Tres senderos hacia el lago* en su traducción al español) dentro de la obra de Ingeborg Bachmann, el artículo recoge las dificultades encontradas en el proceso de traducción de cada uno de los relatos del libro y las soluciones elegidas en cada caso para su traducción al euskera. Para ello se han ilustrado los casos más significativos con algunos ejemplos, tomados tanto del original como del euskera (así como del inglés, francés y español, cuando se ha considerado oportuno). El artículo se cierra con una breve reflexión sobre el lenguaje y sobre las figuras femeninas de Bachmann.

Résumé

Après une brève introduction qui situe l'œuvre poétique et prosaïque d'Ingeborg Bachmann, et notamment le recueil de nouvelles *Trois sentiers vers le lac*, nous étudions dans cet article les difficultés rencontrées dans le processus de traduction de chacune des nouvelles de ce recueil et les solutions trouvées pour les traduire vers le basque. Les cas les plus significatifs sont illustrés par quelques exemples de la version originale ainsi que de la traduction basque, espagnole, française et anglaise, afin de montrer les stratégies utilisées dans chaque langue. Enfin, l'article se termine par une brève réflexion sur le langage utilisé dans les nouvelles et sur les figures féminines de Bachmann.

Abstract

After an introduction that establishes the position of the collection of stories *Simultan* (*Three Paths to the Lake*) within Ingeborg Bachmann's work, the article discusses the difficulties encountered in the translation process of each of the stories in the book and the chosen solutions in each case for their translation into Basque. Relevant examples are presented and illustrated with selections taken not only from the original text and its Basque translation, but also from translations into English, French and Spanish, in order to demonstrate the strategies used in each language. The article closes with a brief reflection on language and on Bachmann's female protagonists.